



Kultur Maratilak lau antzerki-saio eta musika-emanaldi bat eskainiko ditu lau egunez Leioan ▶11

Laurita Silesek «helARTE es morirse de frio» egitasmoa aurkeztu berri du Bilbon. Martxoaren 22ra arte dago ikusgai Rekalde aretoan. ▶3



hiruka

Uribe Kostako astekaria



6. zenbakia

2015eko
otsailaren 26tik
martxoaren 4ra arte



Miguel Madariagak
Euskadi Fundazioaren
23 urte azpiko eliteko
talde berria aurkeztu
du, 70 urteaz. ▶16

**«Euskal
txirrindularitza
larri zaurituta
dago, hilzorian»**

SAKONEAN URIBE KOSTA

Fracking-a datuetan



Haustura hidraulikoaren eta Geminis proiektuaren kontrako mugimenduak martxan dira eskualdean. Eskualdeko hainbat udal ere lanean dabilta teknika eztabaidatsu horren harira; Barrika, Gorniz, Plentzia eta Sopelakoa kontra agertu dira. ▶22

HERRIZ HERRI SOPELA ETA GETXO

Emakumeen Egunari begira

Urtero legez, martxoaren 8rako hainbat ekimen antolatu dituzte, martxoaren 1etik aurrera: Sopelan eta Getxon. ▶2 eta 7

AGENDA URIBE KOSTA

Korrika gero eta gertuago

Uribe Kosta mailako aurkezpena egingo dute otsailaren 27an, barikua, Sopelako Urko kiroldegian. ▶12



Egunero 24 orduz Uribe Kostako albiste gehiago gure atari digitalean: www.hiruka.eus



Egin, egiten gara

LUR MORAGUES SAITUA
Bilgune Feministako kidea

Goazen bada burujabetza feministarantz

Gaurkoan neu nabil idazten, Lur. Tabernari ohia, Amaren alaba, Gomera... Modu askotan defini dezakegu gure burua, are gehiago hitz gutxitan baldin bada. Plazer bat da niretzat Bilgune Feministako kide bezala HIRUKAN idaztea. Kolektiboki osatutako irakurketak eta aldarrikapenak plazaratzeko bitartekoa bilakatu zaigu Bilgune kideoi zutabe hau. Hortaz, hemendik aurrera ardatz beretik, baina norbanakoan izaeratik egingo dizuegu iritziz. VWek esan bezala, «historiara pasatu diren lanak ez dira lorpen isolatu eta bakartiak; urte askotako pentsamendu komunaren emaitza dira, pertsona askoren pentsamendu kolektiboaren ondorio. Hau da, norbanakoaren ahotsaren atzean masaren esperientzia dago». Horrekin ez dut esan nahi berton idatziko dugun guztia historiara pasatuko denik, kar-kar! Baina, arrazoiak ditugu sinesteko historiaren zati bat idazteko gakoez ariko gara. Ondarroan ehunka emakume ibili ginen kolektiboki gure etorkizuna proiektatzen, amesten, eraikitzen! Sistema kapitalista heteropatriarkal honetan ez gaude gustura. Ez gara askeak eta. Beraz, halabeharrez historia egiten saiatuko gara, denon artean Euskal Herriaren burujabetza feministarako pausoak eman ditzagun. Hitzek beraiek ederto adierazten duten prozesua da. Prozesu indibidual zein kolektiboa; norbanakoon gorputzak, emozioak, beharrak, desirak eraldaketaren erdigunean kokatuta, komunitatearen eta harremanen gutasuneraino erabakitzeko ahaldunduko garen. Goazen bada sexu bereizkeria eta zapalkuntza esparru denetan gaingidutiko duen, eta pertsonen eta inguruaren bizitza erdigunean jarriko duen eredia eraikitzen! Goazen bada burujabetza feministarantz.

Ekonomia jorratuz

Ekintzaileentzako jardunaldiak izango dira martxoan, herriko ekonomia sustatze aldera.

Martxoaren 18tik 28ra bitartean «Zerbitzuetako Hiritan Ekonomia Sustatzeko Jardunaldiak. Getxo 2020» programa egingo dute Getxo Elkartegian. Horretarako, Udalak Bilbao Metropoli 30 elkartearen laguntza izango du. Jardunaldien helburua proposamen zehatzak aurrera eramatea da, udalerrirako ezarritako arlo estrategikoetan ekimen ekonomikoak garatzen eta dinamizatzen lagunduko dituztenak: Sormenaren eta kulturaren industriak, Kirolaren teknologia eta industriak, Ongizatea eta turismo kulturala, eta Turismoa eta gizarte-berrikuntza.

Ekimena irauten duen bost egunetan zehar, erakundeetako ordezkariak eta hainbat arlotako profesionalak parte-hartzaileak eztabaidatu eta euren sektoreetan jasotako esperientziak elkartrukatuko dituzte. Gainera, Getxoko bertoko proiektuen eta uda-



Jardunaldiak Areetan dagoen Getxo Elkartegian izango dira.

lerrian ikasteko izan daitezkeen kanpoko ekimenen inguruan ere arituko dira.

Jorratuko dituzten gaiak ondorengoak izango dira: «Getxoko ekonomia sustapenerako planteamendu estrategikoa», «Gizarte-berrikuntza eta enpresa», «Enpresen garapena kirolaren teknologia eta industriaren esparruan», «Sormenaren eta kulturaren industriak ekonomiaren eragile beza-

la» eta «Ongizatea eta turismo kulturalaren enpresa-boterea».

Jardunaldi horiek aipatutako esparruetan lan egin nahi duten udalerriko ekintzaileei edota dagoeneko lanean dabilatzatenei zuzenduta daude. Jardunaldiak 09:00etatik 14:00etara izango dira, Areetako Ogoño kaleko 1. zenbakian dagoen Getxo Elkartegian. ◀

Harremanetarako: 944 660 140
getxolan@getxo.net

Etxebizitzak errenta sozialean jartzeko programa, martxan

Hutsik dauden etxebizitzak alokairua sustatzeko programa jarriko dute martxan Getxon, «Zabaldure etxea. Irabazi segurua» lelopean, Eusko Jaurlaritzaren Alokabide sozietate publikoarekin. Horrenbestez, informaziorako erakusmahaiak jarriko dituzte, udalerrian hutsik dauden etxebizitzak alokatu daitezen, bi programaren bitartez: bata, Bizigune eta, bestea ASAP. Otsailaren 25ean, Areetako Xake plazan egon ziren; hilaren 26an, berriz, Algortako Telletxe plazan egongo dira. Bertan, kanpainaren berri emango dute 10:00etatik 20:00etara, eta jabeak konbentzitzen saiatuko dira. Hurrengo egunean, hilak 27, barikua, Alokabideko teknikariek etxebizitzak errentan eman nahi dituzten jabeak hartuko dituzte Areetako Getxo Elkartegian. Getxon 2.007 lagunek eskatzen dute errentako etxebizitza bat. ◀

Info +: www.getxo.net
Harremanetarako: 900 251 251
www.alokabide.euskadi.net

Kurdistaneko emakumeen egoera gogoan



Hitzaldia martxoaren 1ean egingo dute, Areetako Andres Isasi musika-eskolan, 12:00etan.

Martxoak 8ko Emakumeen Eguna. Mri begira, Algortako Bilgune Feministak ekitaldi berezia prestatu du martxoaren 1erako, Giltza, Mujeres con Voz eta Haziak taldeakaz batera. Hitzordua 12:00etan jarri dute, Areetako Andres Isasi musika-eskolan. Emakume kurduak aipatuko dituzte, aurtun Emakumeen Mundu Martxa Kurdistanetik abiatuko baita. «Kurdistaneko emakumeen lekukotza eta me-

zua jaso nahi ditugu, eta ahal dugun neurrian barneratu eta zabaldure», azaldu dutenez. Algortako hainbat elkarte feministak deialdi bateratua egingo dute martxoaren 8rako. Bilgune Feministak, Mujeres con Voz eta Haziak talde sortu berriak zaintzaren gaia aterako dute kalera. Egun horretarako tailerrak eta txokolatada egingo dute Txiki Otaegi plazan, eta bertatik manifestazioa abiatuko dute. ◀

Getxo

«Ondoriorik ez duen ikerketaren laburpena»

Laurita Silesek «helARTE es morirse de frio» proiektua aurkeztu du Bilboko Rekalde Aretoan. Bertan, ikus-entzunekoak eta marrazkiak ikus daitezke, besteak beste.



Laurita Silesen «helARTE es morirse de frio» proiektua Rekalde Aretoan ikus daiteke.

Urte askotan Algortako bizi-laguna izan den Laurita Siles (Malaga, 1981) gaur egun Enkarterri eta Uribe Kosta artean bizi da eta lan egiten du. Orain doktoregoko ikerlana amaitzen dabil EHUKo Leioako Arte Ederren Fakultatean.

«helARTE es morirse de frio» erakusketa ikusgai dago Rekalde Aretoan, martxoaren 22ra arte. Hara bertaratzaren direnek zer ikusiko dute?

Erakusketa honen oinarritzko pieza ikus-entzunezko bat da. Esan genezake «helARTE es morirse de frio» esamoldearen inguruko dokumentala dela. Horrez gainera, hainbat marrazki ikus daitezke, Karrantzako ardi beltzen artilezko mendi bat eta artile horregaz egindako bestelako bi pieza: haril eta txapel bana, hain zuzen ere. Horiek biak otsailaren 19an egin nituen *in situ*, Joseba Edesagaz egindako ekintzan.

Zer mezu zabaldu nahi izan duzu?

Gauza asko. Baina ez ni bakarrik, proiektu hau aurrera eramateko jende askoren laguntza izan baitut. Bideo honetan 16 pertsonari egindako elkarrizketen zatiak agertzen dira; horien artean, artistak, komisarioak eta kultura-kudeatzaileak. Testigantza horiekaz, hainbat galdera erantzuten ditut, hala nola eguraldiaren eta artearen arteko lotura, edo hotza sortzeko eta sentitzeko ideia. Laburbilduz, ondoriorik ez duen ikerketa-lan baten laburpena da, umoreaz, ironiaz eta gogoz beteta. Hala, ateak zabalik uzten dizkiot introspekzio kreatiboari. Hasiere batean, proiektua 9 atalez osatuta zegoen, hilero Interneten argitaratutituenak, 2013ko urritik 2014ko ekainera bitartean.

Lanaren titulua hitz-joko bat da...

Bai, hitz joko oso zaharra da. Oso erakargarria egiten zait esamoldeak hasiera puntu bezala hartzea proiektu

bat abiatzeko. Normalean, herriko jakintasun sakona duten irakaspenak dira. Gauza txiki batetik hastea bezala da, ondoren handi egiteko. Baina, babiliteke askotan kontrakoa izatea.

Hiru lekutan egindako proiektu bat berregiten duzu bertan, ezta? Zergatik toki horiek? Zer lotura dute?

Erakusketan aurkeztzen diren lanak hiru toki desberdinetan kokatutako ikus-entzunezko proiektu batean daude sartuta: Bizkaian, bertan bizi bainaz; Marbellan, nire sorterria delako, eta, Islandian, egoitza artistikoa Gullkistan-en izan bainuen, Laugarvatn izeneko herri txikian dagoen sorkuntzako etxaldean. Toki bakoitzetik bertoko lehengai kulturalak eta sozialak hartu ditut, besteak beste; pertsonaletik lokalera. Halaber, dokumentalean, elkarrizketatu bakoitzaren jatorriko egoera kulturalaz hitz egiten dut. ◀

Info+: www.helarteesmorisedefrio.blogspot.com

Zurumurruen kontrako hirugarren saioa prest

Udalak zurumurruen kontrako III. jarduera antolatu du, immigrazioaren eta kultur aniztasunaren kontrako estereotipo negatiboei aurre egiteko abian jarritako Estrategiaren barruan. Sei saio izango dira, bi orduko iraupenekoak, martxoaren 11, 16, 18, 23, 25ean eta 30ean, Algortako Villamonteko kultur etxean, 19:00etan. Parte hartzeko alde aurretik eman beharko da izena. Saioetan kultura eta identitateari, estereotipoari eta aurreiritziei buruzko prestakuntza teorikoa eskainiko da, baita zurumurruek sortzeko mekanismoak lotutako ere. ◀

Romoko GEDk berbaldia egingo du otsailaren 27an

Itzubaltzeta/Romoko Gure Esku Dago taldeak hitzaldia emango du otsailaren 27an, barikuagaz, Romoko kultur etxean. Hitzordua 18:30ean jarri dute, eta bertan Anjel Oiartzabal eta Zelai Nikolas GEDko kideek parte hartuko dute. Horrez gainera, 2015erako proposamena azaldu eta aurkezpene egingo dute; izan ere, iaz giza katea egin zen bezalaxe, aurten «sekula ikusi ez dena» egingo dute. ◀

Harremanak eta euskara sustatzeko indaba-jana Gobelan

Gobela ikastolak indaba-jana hartuko du martxoaren 7an, hango gurasoek antolatuta, 10:00etatik aurrera, 9 euroren truke. Ospakizun horregaz, guraso eta sendien arteko harremanak eta euskara bultzatu nahi dituzte; azaldu dutenez, «gure arteko harremanak hobetu eta erlazioak sendotu» nahi dituzte. Gurasoek antolatuko dute egun guztia: jakiak prestatu, banaketa egin eta garbitu, besteak beste. Horrez gainera, egunean hainbat txapelketa egingo dituzte, hala nola zaku lasterketa, karaokea, zumba, dantzak eta kantak. Gogoratu dutenez, hara bertaratzen direnek mahai-tresnak etxetik eramane beharko dituzte. ◀



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



GOIZEAN

“Gozoki eta prentsa, gubi denik ez prentsa”
Prentsa - Fruitu lehorak - Aldizkariak - Lixarrieriak
Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

Getxo

Etxebizitza hutsak erabiltzeko eskubidea aldarrikatzen dute

Algortako Ernaiko eta Txorimalo gaztetxeko kideek etxebizitza eskubidearen aldeko kanpaina bateratua abiatu dute. Martxoaren 14an jardunaldia egingo dute.



Azken egunotan «Non daude giltzak» goiburuagaz hainbat pankarta jarri dituzte Algortan.

Udalerrian etxebizitza eskubidea aldarrikatzeko kanpaina sozioekonomiko bateratua abiatu dute Algortako Ernaiko eta Txorimalo gaztetxeko kideek. «Non daude giltzak?» goiburuagaz, azken egunotan giltzak nonahi eskegita eta Getxoko etxebizitzaren egoeraren datuak azaltzen dituzten pankartak ikusi dira Algortako kaleetan. Horrez gainera, gaztetxekoei datu eta azalpen gehiago emateko txostentxoak banatu dituzte auzoetan, udalerriko jendea informatu eta eztabaida piztu ahal izateko. Informazio fase horren ostean, Algortako gazte-asanbladako eta Ernaiko lagunek «Etxebizitza eta okupazioa» izeneko jardunaldiak prestatu dituzte martxoaren 14rako. Horretarako hitzordua 11:00etan jarri dute, Eztabaida Gunean, eta esperientzia handiko hainbat eragile eta talde gonbidatu dituzte eztabaidarako: Errekaleor (Gasteiz), Txantreako Emantzipazio Bulegoa (Iruñea), Can Vies (Bartzelona), Bilboko Okupazio Bulegoa (Bilbo), Iruñerriko gaztetxeak (Iruñea), Euskal Jai (Iruñea) eta Tosuko Landa (Algorta). Algortako gazte guztiak gonbidatuta daude jardunaldian parte hartzera.

Kanpainaren aurrekariak

Joan den urtean Ernaikoek martxan jarritako prozesuaren hurrengo pausoa

da okupazio-mugimenduko neska-mutilakaz batera hasitako kanpaina. Izan ere, 2013 eta 2014 bitartean ezker abertzaleko gazte-erakundeko kideek Algortako gazteen kezkak ezagutzeko bira hasi zuten. Horretarako, txoko txoko joan ziren adin ezberdinetako neska-mutilen artean eztabaidak sortzeko eta horien iritziak jasotzeko. Hala, hainbat kuadrillatetik igaro ostean, urriaren akabuan, OihUKA jaialdiaren baitan, gazte-topaketak egin zituzten Txiki Otaegi plazan, Algortako auzotar gazteen artean eztabaidak sortzeko, horien kezkak komunean jartzeko, eta, horiekaz batera, bide berri bati ekiteko. Topaketetan, gaur egungo egoera sozioekonomiarekiko eta etxebizitzarekiko kezkak nagusitu ziren, besteak beste.

Bitartean, Txorimalo gaztetxeko lagunek etxebizitzaren arazoaren inguruan eztabaidatu eta datuak lortu ostean, ohartu ziren Getxon etxebizitza eskubidea «luxu bat» dela; hori dela eta, «luxua dena eskubide bilakatzeko» kanpaina jarri zuten martxan, euren kabuz hasieran, eta Ernaikokaz batera azkenean. Txorimalokoen arabera, EAEn 74.650 etxebizitza huts inguru daude, eta kale gorrian bizi diren pertsonen kopurua 1.700ekoa da. «Ikus daitekeenez, kalean bizi den pertsona bakoitzeko 43 etxe huts dago», azaltzen dute.

Parte-hartzea alor guztietan sustatuz

Herritarren parte-hartzea sustatzeko Ordenantza baten proposamena aurkeztuko du EH Bilduk martxoaren 3an.

Martxoaren 3an «Getxo parte-hartzaile baterantz» jardunaldia egingo du EH Bilduk, Getxoko herritarren parte-hartzea bultzatzeko Ordenantzaren gainean egindako proposamena aurkezteko, besteak beste. Bertan parte hartzeko gonbita zabaldu dute herriko hainbat lagun eta elkarteren artean. Horrez gainera, bi aditu gonbidatu dituzte: Axier Jaka, Donostiako Udaleko Partaidetza zinegotzia, eta Nicola Foroni, Munduan zehar hainbat partaidetza-prozesutan parte hartu duena. Saioa martxoaren 3an izango da, arratsaldeko 19:00etatik aurrera, Villamonte kultur etxean. Azaldu dutenez, EH Bilduk Getxoko Udalera sartu zenetik izan duen lehen-

tasunetariko bat herritarren parte-hartzea sustatzea izan da. Horrez gainera, parte-hartzeak hainbeste muga zituela ikusita «Udala zabaltzeko unea da» dinamika abiarazi zuten iaz.

Gonbidatuetako bat, Nicola Foroni, italiarra da sortzez, 20 urteaz Nikaraguara bidaiatu zuen kooperante aritzeko eta lanbide-eskola batean irakasle ibili zen hasieran. Laster, ordea, El Salvadorretik iritsitako errefuxiatuak hasi zen lanean: proiektuen kudeaketan laguntzen zien. Gero, Nikaragua utzi eta El Salvadorrera jo zuen. Bertan, Fastras fundazioagaz hasi zen lanean, herrialdeko komunitateak elkarlanean gizarte-gaitan eragiteko. Gerra amaitzean, CIAZO fundazioaren zuzendari izendatu eta UNESCOgaz elkarlanean jardun zuen, bake-hezkuntzaren inguruan. Azken 15 urteetan Euskal Herria du bizileku, eta freelance 4 kontinentetan zehar ibili da eraldatzeko prozesuen bideratzaile-lanetan.



Hitzarmena Eusko Jaurlaritzak eta Getxoko Udalak sinatu dute.


Datuak online partekatzeko akordioa sinatu dute

Eusko Jaurlaritzak eta Getxoko Udalak lankidetzak hitzarmena sinatu dute, informazio, administrazio eta kudeaketa elektronikoko zerbitzuak elkarri eskaintzeko. Hitzarmen horren bidez, Eusko Jaurlaritzak eta Getxoko Udalak beste urrats bat eman dute Herritarrek Zerbitzu Publikoetara Sarbide Elektronikoa izateari buruzko 11/2007 Legea betetzeko. Horren arabera, administrazio publiko guztiek

eurakaz harremanetan jartzeko bide elektronikoak erabili ahal izatea bermatu eta beren artean informazioa trukatu behar dute, herritarrek izapide administratiboak errazago egin ditzaten, hain zuzen ere.

Lankidetzak hitzarmenak lau urteko iraunaldia du. Urtez urte luza daiteke modu automatikoan, gehienez ere hamabost urtez.

Erandio



Erandioko zarataren mapa, gauez. TECNALIA FUNDAZIOA - HIRUKA

Erandioko zarata ikusgai

Zaraten mapa eguneratu du Erandioko Udalak. Urtarrilean amaitu du Tecnalia fundazioak 2013an hasitako prozesua. Kaltetutako gunek eta ikerketa osoa sarean daude.

Erandioko Obrak eta Zerbitzuak udal arloak eskatuta, Tecnalia fundazioak Erandioko zarata-maparen eguneratze-txostena egin zuen, 2013ko uztailan. Alvaro Santander, Igone Garcia eta Manuel Vazquezek sinatutako dokumentuak EAEko 213/2012 dekretuaren prozedurari jarraitu zion.

Aipatutako ikerketa-eskaera, legeriak agindutakoa betetzeaz gainera, Erandioko Udalak zaratak kudea-

tzeko aspalditik agertutako kezkaren erakusle ere bada. Gauzak horrela, informazio berria «hirigintzako plangintza berrikusteko prozesuan, kontuan hartzeko dokumentazio erabilgarria» izango da, Tecnalia ohartarazi duenez. Era berean, Fundazioak dio txostenak emandako emaitzak erabili beharko liratekeela zaratari aurre egiteko ekintza-plana gara dadin. Aurretik, 2007an egin zuen Erandiok bere lehen zarata-mapa.

Azken txostenak zehaztasunez aztertutako zarata-sorburuak honakoak dira: Avanzadako, Itsasadarreko, Lutxanako eta kategoria txikiagoko errepideak; Metro Bilbaoren trenbidea; Euskotreneko Lutxanako tailerra; Goi-koa, Enekuri, Asua, Axpe, Alzaga eta Fatimako industrialdeak; eta Loiuko aireportua.

Bost biztanletatik bat, kaltetuta

Erandioko biztanleen %21,3k pairatzen dituzte gauez 55 dezibelioko baino gehiagoko zaratak euren etxean; eta, horrenbestez, soinu-kalitatea eskasagoa dute. Ikerketaren arabera, hiri-ibilbideek sortzen dute zaraten %16,9; errepideek, %3,2; eta, azkenik, industriak, %0,1.

Arazorik handienak hemen daude: Astrabuduko Mezo kalean; Alzagako San Antonio eta Obieta kaleetan; eta Asua-Erletxe eta Avanzadako errepideetan. Etxe-fatxadeetara 60 dezibeliotik gorako zarata heltzen da.

Maila apalago batean, 55 eta 60 dezibelio arteko hotsak dituzten gunek honakoak dira: Astrabuduan, Atxutegi, Mezo, Txakurzulo, San Lorentzo, Iturrimingo, Aldaieta eta Bilboko kontsul-etxea kale eta bideetan; Alzagako San Antonio, Antonio Trueba, Urdaneta, San Inazio, Legazpi, Tartanga, Obieta, Txinboak eta Geltokia kale eta hiribideetan; eta Lutxanan, auzo osoan, Metro Bilbaoren eraginez.

Maila bereko zaratak sortzen dira trafikoagatik, eta Alzaga eta Erandio-goikoaren arteko zein N-637, BI-637, BI-737, BI-647, BI-2731, BI-604 eta BI-711 errepideen bazterreko etxeetara heltzen dira. Industriari dagokionez, Befesa Aluminio da gauez arazoak sortzen dituen enpresa bakarra, Lutxana-Asua errepidearen 13. zenbakian. Azkenik, aireportuak «ez du kalitate akustikoaren mugak urratzen dituen soinu-maila sortzen», Tecnaliaren aburuz, beren-beregiko Isolatze Akustiko Plana dauka. ◀

Info+: erandio.net



Potxingoak kalean

ANATERESA
ESCUDERO BIZKARGUENAGA
Kazetaria

Harrapatuta, onartzen dot jausi nazela

Engantxatu naz, bai. Onartu behar dot neu ere aramuan jausi nazela. Bi atzamarrak begiak estaltzen ditudala, 50 bat taldeko kide nazela aitortu behar dot.

Ez dira nireak danak, baina nire zenbakia agertzen da. Beraz, neu naz kidea. Alabei engantxatuta dagozala leporatu arren, neu ere banago. WhatsApparen aldeko manifestua egiteko mila arrazoi ditut. Baina gaur ez. Agian goizeko seietan izartu nabelako. Agian beste hainbate-tan bezela pantailan sartzen ez dan zakila edo alua heldu jatalako. Zorionez, kontrolpean dotala uste dot. Soinua kentzeko gai izan naz, bibrazioa ere. Orain tarteka eta begi txikiagaz begiratzen dot, eta, bi edo hiru bider geratzen naz erantzun gabe. Hori bai, laugarrenean zast! barriro be harrapatuta.

Dana dala, egunen baten watsapeatzen badaustazu gogoratu mesedez: Ez zaitez alperra izan eta dedikatu egistazuz hitz bi, emotikonoa gehigarri modura bakarrik.

Talde handi baten zeozer galdetzen dabenean, ez sartu erantzunik ez badozu. Gaur goizean bertan, gelako taldean ama batek, bere umeak galdu dauan Nemoren galtzerdiaren argazki bat bialdu dau bikotea osotu gurean. Momentuz ez da erruduna urten. Jonek ez, Anek ez, Katik ez, guk ez... holako 15 mezu bialdu dabez eta taldean 24 gara. Mesedez daukanak erantzun dagiala!!!!

Nik gainera, ekarpen berezia egin diot wasshappari, hizkiak nahastatzen ditut. Aurreko horri, autokorrektore madarikatuaren laguntza gehituz, emoitza ederra. Orain gitxi, lagun bati mezu polita idatzi gurean «animo guapita» jarri neutsen. Hori uste neban, irakurri ostean 'i' ordeztu, 'u' jarri nebala konturatu nintzen. Jarriozu zuk beraz, txatari amaiera emoteko gura dozun emotikonoa.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK


Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Zabala 9
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84



Leioa

Pinosoloko «egiak», agerian

Etkez etxe aldizkaritxoa banatzen dabil EAJ, azken asteotan. Bitartean, EH Bilduk eztabaida publikoa eskatu dio Udalari.

Pinosolo kiroldegiko proiektuari buruz, aldizkaritxoa banatzen dabil egunotan Leioako EAJ. Jeltzaleen iritziz, udal agintariak «garden-tasun osoz» jokatu zuten egitasmoa kudeatzeko orduan. «Ustelkeria zantzu garbiak» azaleratu zituen ikerketa-batzordea «zuzenbidearekin bat ez datorrela» diote. «Kutunkeria» susmoak tarteko, birritan esleitu behar izan zituzten kiroldegia altxatzeko lanak. Oraingo honetan, berriz, «justifikaezina justifikatzea» leporatu dio EH Bilduk EAJri. Koalizio abertzalearen berbetan, «heldu da unea gai horren inguruan eztabaida publikoa egi-

teko». Horregatik, EH Bilduk Udalari, eta zehazkiago, EAJ eta Ezker Batuaren Udal Gobernuari eskatu die Kultur Leioan Pinosolo auziari buruzko solasaldi irekia deitzea, «denok onartutako pertsona inpartzial batek gidatuta, eta Udalean ordezkaritza daukaten talde politiko guztiek parte hartzeko aukera izan dezaten».

Ustezko irregulartasunei ezik, oposizioko alderdiei leporatzen die EAJk «herriari onura handiak» ekarriko zizkion egitasmoa gelditu izana. Kanpoko igerilekuak zein padel eta tenis pistak 2010ean zabaldu ziren. Baina, 2011ko udal hauteskundeetan ostean, Bilduk, PSE-EEK eta PPK kiroldegi estatiko egitasmoa bertan behera utzi zuten. «Proiektuaren idazketa-lanek eragindako 1,6 milioi euroko diru-zorra» ordaindu behar izanaren errua ere aipatutako alderdi horiei egotzi die EAJk, plazaratutako aldizkarian ◀



Leioako batzokian eskuragarri dago EAJk plazaratutako aldizkaritxoa.



Maitasun Gutunen Lehiaketaren sariak banatu zituzten otsailaren 13an Kultur Leioan, hainbat irabazle falta zirela. Arianne de la Cruz, Ainhoa Fischer, Naroa Elortegi, Ana Rodríguez, Herminia Dionis, Ana Torrecilla, Jose Ignacio eta M^a Inmaculada Pastor dira saritutako lagunak.

Hondakinen bilketari buruzko bulegoa

Udalak aurkeztu egin ditu kaleen garbiketarako eta hiri-hondakin solidoak batzeko ibilgailu berriak. Emisio atmosferiko eta akustikoak murrizteko aurrerakuntza teknologiko handiez hornituta daude kamioiak. Horrez gainera, bulego bat prestatu dute Independentzia kaleko 10. zenbakian, herritarren zalantza eta kezkei erantzun ahal izateko. Bulego horrek, aurrez aurreko egitekoa eskatzen duten zerbitzuei erantzuna emateaz gainera (tresna handiak, bilketa organiko, merkataritza eta ostalaritzarako edozein atez ateko zerbitzua...), auzotarren kexa edo iradokizunak bideratzeko eta hondakinei buruzko aholkuak emateko balioko du. ◀

Jostunak pelikula ikusgai, hilaren 27an

Gure Esku Dago herri-ekimenak *Jostunak*; herritarren borondateak jositako istorio bat dokumentala ikusteko aukera emango du otsailaren 27an, barikua. Proiekzioa 19:30ean izango da Errekalde plazako nagusien etxean, sarrera doan. Batetik, Durango eta Iruñea arteko ekaineko giza katearen eta Gure Esku Dagoren sustraitze-prozesua kontatzen du ikus-entzunezkoak; «hedabideetan agertzen ez den kronika»: nola abiatu ziren lehen batzordeak, lehen asmoak... Bestetik, «erreferentzia» diren hainbat lagunen adierazpenak jasotzen ditu. «Erabakitze eskubidearen inguruko korapilo nagusiak askatzeko ahalegina» da, GEDren arabera. ◀

HIRUKAko kide izan gura duzu?

Bete 19. orrialdeko kupoia eta bidal egiguzu hurrengo helbidera:

Martikoena 16, 2. solairua. 48992 GETXO

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.

Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.

Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.

Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.

Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez:

Tlf. 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)
info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net



Sopela

Martxoaren 2tik 8ra, morez jantzita

Emakumeen Astea antolatu dute Itzartuk eta Sopelako Udalak martxoko lehenengo astean. Egunero zertaz gozatu egongo da: antzerkia, berbaldiak, ekitaldiak...



Haizea Lopez idazle sopoloztarrak bere azken lana aurkeztuko du

Urtero legez, Martxoaren 8agaz lotuta asteburu osoko egitaraua antolatu dute Sopelako Udalak eta Itzartu emakumeen elkar-teak, Emakumeen Astearen baitan.

Martxoaren 2an izango da lehenengo ekimena: Saioa Asensio brigadistak Argentinako emakume indigenen lehenengo martxaz berba egingo du. Martitzenean Itzartuk antolatzen duen XIX. tarta-lehiaketaren txanda helduko da, eta eguaztenean, berriz, genero ikuspegiko zineaz gozatzeko aukera egongo da. Martxoaren 5ean, Itzarturen egunik handiena, helduko da, pinturen, olerkien eta ipuin laburren lehiaketen ekitalditxoagaz. Barikuan, oster, ekimen bi egongo dira: Haizea Lopez idazle sopoloztarraren *El veneno de Jane Ryan* liburu berriaren aurkezpena, eta *Emakumeak Goyaren lanetan* berbaldia eskainiko du Adela Bueno adituak.

Aste akabuari begira, jarduera bi antolatu dituzte: zapatuan, Itzarturen bazkaria izango da Artxandan, eta domekan, Arriaga Antzokiko *Casa de muñecas* antzezlan. ◀

Egitaraua

Martxoak 2, astelehena

18:30 Berbaldia: Argentinako emakume indigenen lehenengo martxa, Saioa Asensioekin. Kurtzio kultur etxean.

Martxoak 3, martitzena

18:00 XIX. Tarta Lehiaketa, Nagusien Etxean.

Martxoak 4, eguaztena

18:00 Genero-ikuspegiko zinea: *Al encuentro de Mr. Branks*, Kurtzion.

Martxoak 5, eguena

18:00 Ekitaldia: Itzarturen lehiaketen sari-banaketa: pintura, ipuin laburrak eta olerkiak, Kurtzio kultur etxean.

Martxoak 6, barikua

18:30 Berbaldia: *Emakumeak Goyaren lanetan*, Itzarturen egoitzan.

18:30 Haizea Lopez idazlearen azken liburuaren aurkezpena, Kurtzio kultur etxean.

Martxoak 7, zapatua

15:00 Itzartu elkartaren bazkaria, Artxandan.

Martxoak 8, domeka

19:00 Antzerkia: *Casa de muñecas*. Kurtzio kultur etxean. Sarrera: 3 euro.

Udalbatzak babesa agertu die Helduen Hezkuntzako ikasleei

Sopelako udalbatzak bere sostengua adierazi die udalerriko Helduen Hezkuntzako Ikastetxean ikasten duten ikasleei eta bertan lan egiten duten irakasleei. EH Bilduko Udal Gobernuak aurkeztu zuen proposamena, Uribe Kostako Ikasle Helduen elkar-teak eskatuta, eta helburua da Eusko Jaurlaritzak onartutako ebazpenari aurre egitea.

Koalizio abertzalearen aldeko botoak jasotzeaz gain, testuak PSEko zinegotzi bien aldeko botoak ere jaso zituen, eta EAJk eta PPK abstentziora jo zuten. Onartutako testuak dienez, «erresoluzioaren eraginez ikasle ugari eskolatik kanpo utziko dituzte, euren

formakuntzagaz jarraitu gura duten arren». Proposamenak aditzera ematen duenez, helburua irakasle-kopurua murriztea da: «*Ikasle gutxiago joaten bada eskolara, irakasle gutxiago beharko dituzte, eta murrizketak egin ahal izango dituzte*». Gainera, salatzen dutenez, eskolatik kanporatuak izango diren ikasleei ez diete inolako alternatibarik eskaini.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eskaera argia egin dio Sopelako udalbatzak: «*Bertan behera utz dezala onartutako erresoluzioa, eta hezkuntza arloko eragileakaz batera ikastetxeen beharren arabera erreforma bultzatu dezala*». ◀

Zinegoak gay-lesbo-trans jaialdia, hilaren 26an Kurtzion

Zinegoak gay-lesbo-trans jaialdiaren Uribe Kostako azken hedape-na otsailaren 26an helduko da Kurtzio Kultur Etxera, Getxoko eta Leioako saioen ostean. Sopelan hitzordua 19:30ean jarri dute (sarrera debalde), eta bederatzi film labur ikusteko aukera egongo da: *Utö* (animazioa), *Printzesa* (drama-komedia), *Azken emanaldia* (komedia), *Sinaptica* (drama), *Ileordeak* (komedia), *Hilabete bat eta egun bi* (komedia), *Lucky Fares* (drama), *O.V.O.* (drama) eta *Das Phallometer* (drama-komedia).

Lanak nazioartekoak dira (Alemania, Amerikako Estatu Batuak, Espainiar Estatua edo Argentina bezalako



herrialdeetan sortu dira), eta proiektioak jatorrizko bertsioan emango dituzte, baina azpiztituluakaz. Film labur guztiak iaz ekoiztitakoak dira, eta osagai komun bat izango dute: gay-lesbo-trans edukiak. ◀

info +: www.zinegoak.com

Especialistas en desayunos abrimos desde las 07:00h. y 08:00h. los fines de semana y festivos
www.cafebarzuazua.com
Iturgitxi 13, PLENTZIA
Tf. 94.677.31.28

Gosariak, Pintxoak, Giro eta musika onena ONGI ETORRI!!
Bentabx 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

LURREN
GOSARIAK, PINTXOAK, KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA, Tipia Kalea 1 (Udaleko atzean)

OIARBIDE DEKORAZIOA
· Pladur: Tabikeak, zapaia, baldak
· Eskuola: moldurak, kornisak
· Isolamendua: Beroa, hotza, zarata...
Tf. 656 76 98 10 gorkaolabide@hotmail.com
Andikoetxe 2, GETXO

Hautzaindegitik batxilergora arteko eskaintza
Gatzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.net
www.anderdeunaikastola.net

Berango



Udalak 150.000 euro inguru bideratuko du diru-laguntza horietara.

Kultura, kirola eta aisia sustatzeko laguntzak

Udalerrian kultur, kirol edo aisia jardueraren bat garatzeko diru-laguntzak eskatzeko aukera dago martxoaren 31ra arte. Guztira, 150.000 euro inguru bideratuko dituzte horretarako.

Kultur, kirol eta aisia jarduerak sustatzeko ohiko diru-laguntzak eskatzeko epea martxoaren 31ra arte luzatu du Berangoko Udalak, epetik kanpo aurkeztu diren eskabideak baztertu egingo dituzte zuzenean. Kultura eta aisialdiaren arloan, 61.500 euro bideratuko ditu Udalak; kirolerako, berriz, 90.700 euro. Edozein pertsona fisikok edo juridikok eskatu ahal izango ditu laguntza horiek, baldin eta helbide soziala edo

kokapen iraunkorra Berangon izan eta Berangoko Udalaren Elkartean Udal Erregistroan inskribatuta bada. Halaber, udalerrirako interesgarria den kultur, kirol edo aisia jardueraren bat garatzeko asmoa izan behar du. Horrez gainera, lehenago ere Udalak diru-laguntzaren bat jaso dutenek horren azalpena edo justifikazio memoria aurkeztu beharko dute.

Aipatutako diru-laguntzak eskatzeko deialditik kanpo geratuko dira

ikastetxeek antolatzen dituzten jarduerak guztiak.

Diru-laguntzen onuradunek honako baldintza hauek bete behar izango dituzte: kultura, kirol eta aisiaren eremuan diru-laguntzak emateko modua arautzen duen udal ordenantzaren arauak betetzea, emandako diru-laguntza onartzea zazpi eguneko epean, helburu zehatza adieraztea, jardueraren garatzeko beharrezko baimen guztiak lortzea, jarduerarako lantzen diren karteletan, testuetan edo agirietan euskara eta gaztelania erabiltzea, Berangoko Udalaren babesa aipatzea, eta emandako zenbatekoaren erabilera justifikatzea, besteak beste.

Aste Santuko Aisigunearen izen ematea zabalik

Udalerriko neska-mutil txikienean badute Aste Santuko oporraldietan ondo pasatzeko aukera; izan ere, Berangoko Kultur Etxeak oporraldi horretarako Aisigunea antolatu du.

Ekintza guztiak euskaraz izango dira, eta adinaren arabera hiru gune prestatu dituzte: Ludotxiki, 2009 eta 2011 bitartean jaiotako umeentzat, Berangoeta kultur etxean; Ludoteka, 2006tik 2008ra bitartean jaio zirenetzat, Berango-Meranan; eta Ludokluba, 2000tik 2006ra artean jaiotakoentzat; Berango-Meranan.

Leku-kopurua mugatua da; hala, izena eman beharko da martxoaren 4a baino lehen. Berangon erroldatuta daudenek 20 euro ordaindu beharko dituzte, bestela 40 euro. Martxoaren 9an, astelehena, izango da lekuen zozketa publikoa. Hurrengo egunean, berriz, onartutakoen behin-betiko zerrendak argitaratuko dituzte.

Harremanetarako: 946 681 179

Lemoiz

ArgHizkiak ikusgai kultur etxean, martxoaren 8ra arte

ArgHizkiak Uribe Kostako literaturalehiaketaren hirugarren edizioaren irabazleen 10 argazkiak eta horietan oinarritutako euskarazko testu labur onenak ikusgai daude dagoneko Lemoizeko kultur etxean, Armin-tzan. Erakusketa martxoaren 8ra arte egongo da bertan.

Obrak hainbat argazkitan oinarritutako testu laburrak dira. Lehiaketaren horregaz, jendea euskaraz idaztera eta irakurtzera animatu gura izan dute antolatzaileek; argazkilari uribekostarren lana ezagutzera emateagaz batera.

LUBERRI
Basolanak S.L.
LOREZAINZA

SGS
Nº ES109014

SGS
Nº ES109015

ISO 9001

Soropila Ezartzea
Luzazko prestatze lanak, drenatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtzio organitzatze lanak eta enite lanak.

Soropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, organitzatzea, eguraztea, aratzea eta desinikatzea, berrikatzea, soropila goizak eta belar goizak tratatzea.

Inausketak
Hazea, mantentzea, berrikatzea, zuhaitza opingamari inausketak, esabateko inausketak.

Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Aste (baliatza 28A behelko solairua B12 lokala (ERANDIO) Meg: 629 41 18 38 - Tf: 94 467 17 13 - Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net - www.luberr.biz

txakoli
mota
ganeTx
txakolina

leioa-urbe enpedea 34 (Alkandara Parke) Gohien-Erandia
Tf. 94 467 00 07 - www.txakolimagana.com

UKnatura

Bioeraikuntza
Ingurugira hezkuntza
info.uknatura@gmail.com

ikastaroak eta proiektuak

Taberna Berri
Sarrikobaso 4 - ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

irati

Torre 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

OPARIAK MODA GAZTEA

Plentzia

«Ahaztuta dauden gaiak jorratzen ditugu»

Plasentzia aldizkariak urtebete egin du, horrez gainera, Kandelaria kultur elkarteak Kandela Eguna eta Matxitxakoko batailaren omenaldiak ere antolatzen ditu urtez urte, besteak beste.



Kandelaria kultur elkarteak kideak.

Otsailaren 2an Kandelaria kultur elkarteak *Plasentzia* aldizkariaren hirugarren zenbakia kaleratu zuen, lehenengo argitaratu eta urtebetera.

Urtebete igaro da *Plasentzia* aldizkaria kaleratzen hasi zinetenetik. Zela-koa izan da herritarren harrera?

Jendea pozik ikusi dugu, baina egia esan, gehiago espero genuen. Guk, agian, ez dugu aztertu oso ondo zela-ko eragina izan duen aldizkariak jendearengan. Gainera, maiztasunaren kontua mantentzeko ere ez gara gai izan, denok hamaika saltsatan sartuta gaudelako.

Zenbat zenbaki argitaratu dituzue?

Guztira hiru zenbaki izan dira. Lehen 2014ko otsailaren 2an kaleratu genuen. Pentsatu dugu urtean hiru zenbaki izatea, lau hilerik behin bat; ez dugu beste aukerarik. Ez gara gai paperean argitaratzeko, beraz, digitalean egiten dugu dena. Egia esan, sare sozialen bidez ikusi dugu datuak oso onak direla, bi mila deskarga inguru egon dira zenbaki bakoitzean.

Zeintzuk gai jorratzen dituzue?

Gai historikoak, kulturalak eta Kandelariagaz zerikusia duten gaiak; azken finean, gure lana ere azpimarratu nahi dugu bertan. Horrez gainera, ko-

laborazio gutxi dagoenez, gai ezberdinakaz betetzen joan gara, herrian ezezagunak edo ahaztuak direnak, baina amua daukatenak.

Aldizkariak gain, Kandelaria kultur elkarteak bestelako ekimenak ere antolatzen ditu...

Bai, iaz hitzaldiak, azokak, erakusketak eta ekimen zehatzak antolatu genituen, herrian apur bat egonkortuta daudenak, hala nola Kandela Eguna, aurten apirilaren 18an izango da, eta Matxitxakoko batailaren omenaldia. Gainera, prest gaude bestelako ekimenak antolatzeko, kontuan izanda gure aurrekontua oso mugatua dela.

Matxitxakoko batailaren omenaldia martxoaren 5ean egingo duzue...

Bai, gure asmoa da omenaldia urtez urte egitea, ez soilik egun esanguratsuenetan. Guk nahi duguna da memoria edo gogoia mantentzea. Aurten, gainera, Juan Pardo San Gil historialaria ere omenduko dugu; duela 3 urte zendu zen, eta gai honen inguruan gehien ikertu duen pertsona da. Bestalde, omenaldi hauek gure ideia da inguruko lau herriak lotzea: Barrika, Plentzia, Gorniz eta Lemoiz. Iaz Armin-tzan izan zen, aurten Astondon (Gorniz), eta hurrengo urtean Plentzian. Gainera, etorkizunean plaka bana jarri nahi dugu herri bakoitzean, poema baten estrofa batez. Hala, lau herrietako plakak irakurri gero, olerki osoa irakurri ahal izango da.

Keltse Macias, Independienteak alderdiko hautagaia



Keltse Macias Zarraga izango da Plentziako Independienteak alderdiko zerrendaburua, maiatzeko hauteskundeetan. Isabel Zarauza gaur egungo udalerriko alkatea eta Silvia Lopez de Guereñu alkateordea ez dira aurkeztuko oraingoz.

Maciasen zinegotzi-lanetan jardun zuen 1991 eta 1994 artean. Nabarmendu duenez, «ez dira alderdi nagusiak gure herriaren etorkizuna erabaki behar dutenak. Auzokideak gara nahi dugun proiektua definitzeko legiti-moak garen bakarrak. Denok osatzen dugu udalerrri hau».

Gorniz

Izen-ematea zabalik Lore eta Landareen Azokarako

Gornizek Lore eta Landareen Azokaren laugarren edizioa hartuko du aurten. Azokaren ordutegia apirilaren 12an jarri dute, domeka, 10:00etatik 15:00etara. Bertan parte hartzeko, herriko Turismo Bulegoko arduradunek jakinarazi dutenez, beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea. Hala, martxoaren 1etik 15era egongo da izena emateko epea zabalik, eta Eloisa Artaza kaleko Turismo bulegoan, beheko telefonora deituta edo posta elektronikoaren bidez egin daiteke.

Harremanetarako: 946 774 348
turismo@gorniz.net

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Aritzu z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

berezi
Hamburguesas Bocas
Hamburguesak Ogitartekoak
Sandwiches Platos combinados
Sandwichak Plater konbinatuak
SABINO ARANA, 34 48640 - BERANGO
PEDIDOS: 946 681 064 (PARA RECOGER EN LOCAL)

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK
ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK
Tel. 94 430 52 43 / 607 952 977-6
rgaraizar@gmail.com - www.garaizar.biz
Illeta kalea 1 ALGORTA

GURE ETXEA
taberna
HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA
Lacofris
MARKA GUZTIAK
24 ORDUTAN ERANTZUNA
3 HILABETEKO GARANTIA
HITTEIRA DOAN
Tf. 94 430 52 00 - KASUNE 18 - ALGORTA
www.lacofris.es - sat@lacofris.es

fugu
Baita hurren eginda japoniar eta tradizionalen
www.fugulasaena.com
Evaristo Churrua Kalea 2 (Iorri) - Biciak Zubiaren inguruan - Areeta - GETXO
944 808 796
Baserri-eremua, Urtzu eta Lalo

TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra
Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

Urduliz

Zabor organikoa konpostatzearen alde egiten dute 300 sendik



Urduliztarrek 15.480 kilo zabor organiko utzi zituzten iaz giltzapeko edukiontzi marroietan.

Daborduko, Urdulizko 300 sendik zabor organikoa aparte batzeko hautua egin dute. Horri esker, Udalak 15,5 tona bideratu ditu Artigasko konpostegira. Bosgarren edukiontzia bultzatzen jarraituko dute.

Urdulizko Udala pozik dago Hiri Hondakin Solidoen (HHS) inguruan hartu dituen azken erabakiengatik. 2013ko apirilean ekin zioten zabor organikoa era selektiboa biltzeari, giltza duten edukiontzi marroien bidez. Sistema auzotarren borondatean oinarritzen da; 195 familiagaz hasi zen eta 300 sendi eta 10 denda batzen ditu egun. Urdulizek, oro har, 3.770 bat biztanle ditu. Hor-taz, kopuru garrantzitsua bilakatzen hasi da konpostatze-katearen aldeko auzotarren taldea.

Gauzak horrela, 2013an, 12.840 kilo zabor organiko eraman zituen Udalak Artigasko konpostatze-plantara. Konpostegiak bere lana handitu zuen iaz, urduliztarrek eramandako 15.480 kilori esker. Edukiontzi marroietara botatzen diren hondarrak honakoak dira batez ere: kozinatutako eta kozinatu gabeko frutak eta barazkiak, fruitu lehorren azalak, ogia eta lorategietako hondakinak. Bilketa-sistema hamar ontzigaz abiatu zen, eta, daborduko 24 daude: 14 Landa auzoan eta beste hamar Elortzan.

Balorazio positiboa

Josemari Gondra Urdulizko Ingurumen zinegotzi eta bigarren alkateordearen iritziz, Urdulizek orain arte lor-

tutako emaitza ona da: «batez beste, hiru kilo batzen dabilta asteko eta familiako. Ratio ona da». Lan horretan, laguntza eredugarria izan du Udalak: iaz Elortza eskolako neska-mutilak izan ziren bosgarren edukiontzia erabilpena sustatzeko eta birziklapenaren aldeko sentsibilizazio-kanpainako protagonistak. «Erabat aparta» izan zen ume eta gaztetxoek ekarpena, Gondraren ustez.

Helburu berriak

Halere, Udalak ez du gura horretan gelditu, eta kanpaina berria lantzen dabil. Egitasmo berrian ez du edukiontzi marroi gehiago jarriko. Horren ordez, auzotarrei nork bere konposta egiteko aukera emango die. Era berean, inausketa txikien eta udal kimaketen hondarrak batu, txikitu eta ongarri bihurtzeko asmoa dute, Barrikak urteotan hartutako bideari jarraiki. Ekosistemagaz leial jokatu gura duten herritarrek kultur etxera hurbiltzea besterik ez dute egin behar, bosgarren edukiontzia giltza, kit eta behar beste azalpen jasotzeko.

Urdulizek 1.417.319 kilo zabor batu zituen 2013an, Bizkaiko Foru Aldundiaren datuen arabera. Kopuru horretatik %19,55 baino ez zen bildu era selektiboan. ◀

Uribe Kosta

Parekidetasuna sustatzeko indarrak batu dituzte Barrika, Lemoiz, Plentzia eta Urdulizen

Emakundek, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eudel euskal udalen elkarteak elkarlanean lan egingo dute gure eskualdean 2015ean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko. Zehazki, Berdinbidean Bizkaia ekimenari eutsiko diote, azken lau urteotan Bizkaiko udalerri txikietan parekidetasun-politikak bultzatzeko tresna izan da. Bizkaian 79 herri txiki daude, 5.000 biztanle baino gutxiagokoak, alegia, eta guztiek parte hartzen dute Berdinbidean Bizkaia sarean. Multzo horretan dira Barrika, Lemoiz, Plentzia eta Urduliz.

Hiru euskal erakundeek arteko «lankidetzari esker, lan-sare egonkorra eta kontsultarako eta aholkularitzarako zerbitzu iraunkorra sendotu ahal izan da Bizkaian, etaudal txikiek etekina ateratzen diote horri, ez dutelako baliabide nahikorik, eta babes

teknikoa behar dutelako» berdintasun arloko lanerako, Eudelek nabarmendu duenez. Udalen elkarteak 60.000 euroko foru laguntza jaso du, Berdinbidean Bizkaia ekimeneko lanei aurre egiteko. Berdinbidean Bizkaia aholkularitza-zerbitzuagaz sarean lan eginenez, udalerri txikiek sinergiak sortu eta ahaleginak elkartu ditzakete, parekidetasun-ekintza bateratuak egiteko, eta, ondorioz, udalerri horietako bizilagunei on egiteko.

Besteak beste, pasa den urtarri-laren 29an, hainbat gai landu zituzten Bilbon egindako topaketan: genero-ikuspegiko aurrekontuak; hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-baztertzailerak; bateratzea eta erantzunkidetasuna; eta datu publikoak jaso eta aztertzeke prozesuetan sexuaren aldagaia sartzea. ◀

info+: eudel.eus/destacados/berdinbidean/eu

Unibertsitatea



Zerbitzu berria Gorliz, Urduliz, Sopela eta Berangotik ere igaroko da.

Bizkaibusek Plentzia eta Leioako campusa lotuko dituen autobus-linea berria jarriko du

Plentzia eta EHUK Leioan duen campusa lotzeko autobus-linea berria ezarriko du Bizkaibusek. Aurreikusten dutenez, zerbitzua apirilaren erdialdean jarriko dute martxan, gehienez jota. Horrez gainera, azaldu dutenez, linea horretako autobusek Gorliz, Urduliz, Sopela eta Berangotik ere egingo dituzte geldiduneak.

Plentziako eta Gorlizko ikasleek hainbatetan eskatu dute Leioako eta Erandioko campusera busean joan ahal izateko zerbitzu hori ahalik eta lasterren martxan jartzea. Izan ere,

orain arte campusera joateko egunero ia bi ordu eman behar izan dute, metroa eta autobus-linea ezberdinak tartekatuz, eta horrek dakarren kostu ekonomikoagaz batera: egunero 6 euro, batezbesteko.

Plentzia-Mungia linea berria

Halaber, Plentziako auzokideek Bizkaibuseko beste autobus-linea bat izango dute apiriletik aurrera ere. Plentzia eta Mungia lotuko ditu linea berriak. ◀

Info+: www.bizkaia.net



Maratilaria heldu!



Kultur Maratila zikloak lau antzezlan eta kontzertu bat eskainiko ditu otsailaren 26tik martxoaren 1era bitartean Leioan.

Arte drama arte eszenikoen plataformak eta Kultur Leioak elkarlanean antolatuta, otsailaren 26tik martxoaren 1era luzatuko da Kultur Maratilararen laugarren edizioa. Hala, egunean ATX Teatroak *Arren ganbara emeen sotoa* antzezlan eskainiko du. Barikua-rekin, osterar, *Amodioaren ziega* taularatuko du Lauka antzerki-taldeak. Zapatura helduta, bikoitza izango da eskaintza: batetik, *Zer duzu Amy?* antzezlan ikusgai egongo da Oh my God! taldearekin; eta, bestetik, *Gosariak* izeneko musika-kontzertua eskainiko du Gosek. Amaitzeko, domekan, *Jokoz kanpo* antzeztanaz gozatzeko aukera izango da, Borobil antzerki-konpainiari esker. Daborduko salgai daude 6 eta 10 euro arteko sarrerak, Kultur Leioako leihatilan, eta, sarean, Kutxabankeko webgunean. Zapaturako emanaldi bietarako 12 euroko bonu berezia ateratu dute. Eta ziklo osoa osatu

tzen duten bost proposamenak ikusteko ere 30 euroko bonua eros daiteke, nahi izanez gero.

Maiatzaren 1era arte, gainera, Conny Beyreutherren *Teatroaren taupadak* argazki-erakusketa egongo da ikusgai, «euskarazko antzerkian gailtzean oholtza atzeko sekretuak argazkira eramanda», Artedrama plataformak aditzera eman duenez. Horren ordutegia, astelehenetik barikura, 10:00etatik 20:00etara izango da. Zapatuan eta domekan, berriz, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, egongo da zabalik.

Antzerkia, dantza, bertsoa, musika

Conny Beyreutherren Teatroaren taupadak argazki-erakusketa ere ikusgai dago

zein performancea bildu eta hainbat egunez publikoari euskarazko sorkuntza-lanez gozatzeko aukera ematea da Kultur Maratilararen helburua.

Jon Lazkano Leioako Kultura zinegotziak otsailaren 23ko aurkezpenean esan zuenez, «leku ezinhobea da euskara eta kulturaren inguruan publi-

koa, hedabideak, profesionalak, eta abar, elkartzeko eta bertan parte hartzeko», beti ere «adiskidetasun eta elkarlanean oinarritutako proiektua izanik, sorkuntza eta produkzioa bultzatu nahian, Hego zein Ipar Euskal Herriko loturak indartuz, konpainia zein aretoen ikuspuntutik».

Estreinaldiak

Aipagarria da Leioakoa dela Lauka Teatroaren *Amodioaren ziega* lanaren estreinaldia izango dela Leioakoa. Antzerki-talde gazte horrek Zubi deialdiaren babesa jaso zuen iaz, eta aurton Ipar zein Hego Euskal Herriko espazio desberdinetan ibili dira sorkuntza-lanetan, eta bide hori Leioan amaituko dute. Baina ez da aipatutakoa estreinaldi bakarra. Izan ere, Arantxa Iturbek idatzitako eta Anartz Zuazuak zuzendutako *Jokoz kanpo* antzeztanaren lehenengo saioa izango da Kultur Maratilan. Joseba Apaolazak, Asier Sotak eta Asier Hormazak antzeztuko dute.

Gose musika-taldeak emango duen *Gosariak* kontzertuak ere merezi ditu berba batzuk. Izan ere, aurkezpen-bira mugatua du Joseba Sarrionandia idazlearen hitzetan oinarritutako proiektuak, eta Leioan izango du geldialdietako bat. ◀

Egitaraua

Otsailak 26, eguna

20:30 ATX Teatroaren *Arren ganbara emeen sotoa* antzezlan.

Sarrera: 8 euro

Otsailak 27, barikua

20:30 Lauka Teatroaren *Amodioaren ziega* antzezlan.

Sarrera: 8 euro

Otsailak 28, zapatua

20:00 Oh my God! taldearen *Zer duzu Amy?* antzezlan.

Sarrera: 6 euro

22:00 Gose taldearen *Gosariak* kontzertua.

Sarrera: 10 euro

Maiatzak 1, domeka

19:00 Borobil taldearen *Jokoz kanpo* antzezlan.

Sarrera: 10 euro

Zapatuko emanaldi bietarako 12 euroko bonu berezia ateratu dute. Eta ziklo osoa osatzen duten bost proposamenak ikusteko ere 30 euroko bonua eros daiteke.

BI SARREREN ZOZKETA
ekitaldi bakoitzeko
DEITU: 944 911 337
edo IDATZI: hiruka@hiruka.eus



URIBE KOSTA

Korrika aurkeztuko dute

Gero eta gertuago daukagu Korrika 19. Daborduko herrietan martxan dira tokian tokiko batzordeak, euskararen aldeko lasterketari merezi duen harrera egiteko. Hala, heldu da Korrika eskualdeko herritar denei aurkezteko unea. Otsailaren 27an, bari-kua, jarri dute horretarako hitzordua, 18:00etan, Larrabasterrako Urko kiroldegian. Besteak beste, moda-desfilea, musika, argazkiak eta luncha egongo dira, Uribe Kostako AEK-k iragarri duenez. Euskararen aldeko eragileak adierazi duen legez, bertan ira-

garriko dituzte Korrika 19k ekarriko dizkigun ekitaldi denak.

Korrika Urepelen (Nafarroa Beherea) hasiko da martxoaren 19an, eta Bilbon bukatu, hamar egun geroago, hilaren 29an, bi mila kilometrotik gorako ibilbidea egin eta gero.

Gurean, hilaren 24an, martitzena, Mungiatik helduko da Urdulizera 11:40 aldera, eta Gorliz, Plentzia, Barrika, Sopela, Berango, Algorta, Itzu-baltzeta / Romo, Leioa eta Erandio zeharkatuko ditu. Gero, 16:00ak inguruan joango zaigu Barakaldo alde-

ra, ohi den legez, itsasadarra traine-ruz igaroz. Erandion bueltan izango dugu Korrika azken egunean, goizeko 7:00etan, handik San Ignazio sartu eta Bilborako bidea egiteko.

Durangoko Azoka izango da Korrika 19ko omendua, aurtten 50 urte beteko dituela ospatuz. Aurtengo leloari dagokionez, «Euskahaldun!», Amets Arzallus bertsolari lapurtarrak Korrika 18ren amaieran Baionan esandako berbak ekartzen ditu gogora: «Herri hau euskaraz pentsatuko dugu, edo ez da izanen».

ERANDIO

Berdintasuna sustatzeko ipuina eskainiko dute

Uxue eta Haimar elkarrekin izenburupean, txikienen (4-8 urte) kontzientzia suspertzeko kondairaketa ipuinak eskainiko ditu Amaia Afanadorrek, Erandio-ko Liburutegiaren ekimenez. Lehenengo saioa Altzagan izango da martxoaren 4an, eguaztenagaz, 18:00etan. Bigarrena, ordu berean, hilaren 11n, Astrabuduko liburutegian. Eta azkena 27an egingo dute, 19:00etan Erandiogoikoko Gizarte Etxean. ◀



URIBE KOSTA

Oporretan Txangora joango dira Lehen Hezkuntzako ikasleek

Beste urte batez, Oporretan Txangora egitasmoa antolatatu du Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak,

URDULIZ

Zapatu arrastian haurrentzako zinea nagusi

Otsailaren 28an, zapatua, zineaz gozatzeko aukera egongo da Urdulizko kultur etxean. Batefik, 18:00etan, *Antboy, el pequeño superheroe* filma ikusgai egongo da; sarrerak 3,50 euroan. Berandua-go, 20:15ean, *Descifrando Enigma* pelikula emango dute 7 urtetik gorako neska-mutilentzat, 4,50 euroren truke. ◀



2015/02/26

Zinegoak

Kurtzio kultur etxea | Sopela

Bilboko gay-lesbo-trans nazioarteko zinema jaialdiak eskainitako film laburrak Gaztelaniaz izango da Sarrera doan 19:30

2015/02/26

Eausto... iudadano eiemplar



Munduari bira emango diote Sopelan

Jules Vernerren *Munduari itzulia 80 egunetan* liburuan oinarritu da Gorakada antzerki-taldea bere ikuskizun berria sortzeko. Umore ona, irudimena eta zuzeneko kantuak bartzatuz, munduaren inguruko ibilbide zirraragarria egiten du antzezlanak, 60 minututan. ◀

Noiz: Martxoak 1, domeka, 18:00
Non: Kurtzio Kultur etxea (Sopela)
Sarrerak: haurrek 3 € eta helduek 5 € (Kurtzion, udaletxean eta Sopelaren bulegoan)

GORLIZ

Matxitxakoko bataila gogoan

Aurten 78 urte beteko dira Matxitxakoko itsas bataila gertatu zenetik. Hori dela eta, aurten ere Euzkadiko Gudontzidian parte hartu zuten gudariei eta senideei omenaldia eskainiko diete Uribe Kosta eskualdean. Gauzak horrela, martxoaren 5erako, eguena, jarri du hitzordua Kan delaria Kultur Elkarateak. Arrastiko 19:00etan Astondon (Gorliz) batu ko dira. Besteak beste, harrera txalapartagaz, aurrekua, bertsoak eta lore eskaintza egongo dira. Bestalde, inguruko gudarrien senideei gonbidapena luzatu die Kandelariak, eta, iaz bezala, aurten ere Matxitxako Elkarteko lagunak egongo dira, haien artean Bermeoko Juan Azkarate, Euzkadiko Gudontzidiko azken gudarria. Iaz Armintzan egin zuten omenaldia. Baina, Barrika, Gorliz,

Lemoiz eta Plentzian egitea da Kan delaria elkaratearen asmoa, urte batkoitzean herri batean.

1937ko martxoaren 5ean, gerra garaian, *Galdames* merkantzia-ontzia Bilborantz zihoan, 173 bidaiari zeroatzala. Matxitxako parean, errefuxiatu eta politiko errepublikar ugari zituen ontzi hark frankisten *Canarias* gerra-ontziagaz egin egin zuen topo. *Galdames* babeste ko inguruan zeuden bou euskaldunek *Canarias*-i egin zioten aurre. Gerra-ontzi faxistak bou haietako bat, *Nabarra*, hondoratu zuen eta beste bi, *Gipuzkoa* eta *Bizkaya*, matxuratu. Ordu bi baino gehiago iraun zuen borrokak, *Nabarra*-ko 49 gizonetik 20 baino ez ziren salbatu; Enrique Moreno komandanteak gurago izan zuen ontziagaz hondoratu. ◀



Iaz Armintzan egin zieten omenaldia Matxitxakoko uretan hildako itsas gudariei.

1 Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektroniko honetara: hiruka@hiruka.eus

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.

antzezlanak
Kurtzio kultur etxea | Sopela
Pabellon 6 antzerki-taldea
Gaztelaniaz izango da
Sarrera: 6 euro (ohiko tokietan salgai)
20:00

2015/02/26
Bringas rock taldearen kontzertua
El Comercio kafea | Getxo
Getxo Zuzenean saioen barruan
Sarrera doan
20:00

2015/02/27
Los pitufos II familia osoarentzako filma
Ander Deuna kultur aretoa | Barrika
Gaztelaniaz izango da
Sarrera doan
18:00

2015/02/27
Afari akustikoa Amago musika-bikoteagaz
Kalezulo gaztetxea | Erandio
Afaria eta kontzerturako sarrera: 5 euro
21:00

2015/02/28
El Hobbit. La desolacion de Smaug filma
Berango Antzokia | Berango
12 urtetik gorakoentzat
Gaztelaniaz izango da
Sarrera doan
19:00

2015/02/28
De cuerpo presente antzezlanak
Alzagako azoka zaharra | Erandio
Glu Glu antzerki taldea
Gaztelaniaz izango da
Sarrera: 5 euro.Josu Murueta kultur etxean eta udaletxean eskuragarri
20:00

2015/03/03
Getxo parte-hartzaile baterantz jardunaldiak
Algortako kultur etxea | Getxo
Getxoko EH Bilduk antolatuta
Hizlariak: Axier Jaka Donostiako Udaleko zinegotzia eta Nicola Foroni aditua
19:00



Zientzia-pilulak

**EDUARDO
SAN ANDRES ARANA**
Matematika irakaslea

Eta zein da erantzuna?

Gizaki denok elkartzen gaituen zerbait topatzea ez da lan makala. Kultura, ohitura, heziketa estilo anitzak... Ezbairik gabe aniztasun horrek aberasten gaitu, ezaugarri koloretsua bihurtzen da, bizitzari bizi-gogoa emanez. Dena ez da hain polita, ordea. Ondo dakigu, batez ere garai ilunotan, bizi-ikuspegi ezberdinek elkarbizitza arazo larriak ekar ditzaketela. Ez diogu diferentzia kultural horiek ezabatu beharko liratekela, jakina; baina nola egin bateragarri aniztasun eder hori eta gizakion artean beharko genukeen errespetua, elkarbizitza? Erantzun gaitza. Badago denok onar dezakegun zerbait? Borroka eragingo ez duenik?

Milaka urtetan, gizakiok natura eta mundua ulertzeko, ulertzen saiatzeko, metodo bat garatzen joan gara. Arrazoian eta datu objetiboetan oinarrituko den ezaguera korpus bat. Erroak norbanakoen aurreiritzietan edo ideia subjektiboetan lurperatzen ez dituen sistema, behin-behineko egiak behaketa enpirikoe-tan oinarritzen dituen. Hori da sistemaren ezaugarri nagusietako bat: bere egiak behin-behinekoak dira. Erlijio edo filosofian ez bezala, egiak ez dira behin betikoak, ez dogmatikoak ere, zalantzaren epaiaren menpe dau-de beti. Zalantza baita sistemaren erregaia; sistema Zientzia da; disgustu batzuk tarteko, gozatzen ditugun onurak eman dizkigu. Ez dugu sekula ere adostuko zein den jaungoikoaren izena, baina ez dugu arazorik izango Pitagoras-en teorema onartzeko. Zientzia eta pentsakera arrazionala dira gure itxaropena.



Gaur egun Andoaingo ikastolako irakaslea da Garazi Kamio.

«Bakardadeak ez liguke beldurrik eman beharko»

Garazi Kamio Andoaga idazle andoaindarrak Agustin Zubikarai beka irabazi ostean idatzi zuen *Orube abandonatuak* bere lehen eleberria.

Hiru istorioen bitartez, bakardadeaz berba egin gura du Garazi Kamiok. Hala ere, beldurrik eman behar ez ligukeen gaia dela uste du berak.

Zer aurkituko dugu *Orube abandonatuak* zure lehen eleberrian?

Hiru istorio topa daitezke bertan. Iza-tez, hiruren artean ez dago familia-harremanik, baina badago zerbait hirurak elkartzen dituen.

Zer dute komunean hiru istorioek? Zer adierazi gura dute?

Mario, Miren eta Mainerren istorioak aurki daitezke. Hirurek eraikin baten orubea partekatzen dute. Lehen istorioaren eta beste bien artean 70 urte daude. Ez dute harremanik, baina orubea konpartitzez gain, etxeetako gauza batzuk ere partekatzen dituzte. Objektu batek, adibidez, sekulako ze-

resana izango du batentzat, eta, beste bientzat aldiz, gauza ia hutsala izango da. Hiru istorioetan bakardadea topatuko dugu, bakoitzaren arazoaren ernamuina ere ikusiko dugu, eta, noski, arazotik irteteko ahalegina ere.

Bakardadeari buruzko dirkurtsu oso bat dela diote batzuk.

Bakardadea bizi garen mendeko gaitzetako bat da. Askotan kosta egiten zaigu gai honi buruz hitz egitea. Zer esanik ez, halakorik sentitzen edo bizi dugula onartzea. Beti izan dut buruan bakardadearen inguruko lan bat idaztea. Beldurrik eman behar ez liguken gai bat dela iruditzen zait.

“Bakarrik gaudenean bizitza orube abandonatua dela dio Castillo Suarezek”

Zelakoa izan zen sorkuntza-lana?

Dokumentazio lanik neketsuena zenarekin hasi nintzen: Marioren istorioarekin. Gerra Zibila bizi izan zutenak gero eta gutxiago dira gure artean. Zer esanik ez gerra garaiko eta osteko

kontzentrazio-esparruetan bizi izan zirenak. Lekuak, pertsonen izenak, bizipenak... Halako gauzak biltzen hasi nintzen, eta, astiro-astiro, Marioren istorioa sortzen joan nintzen.

Eta Miren eta Mainerrena?

Mirenena apur bat samurragoa egin zitzaidan: gertuago nituen heroinaren garaia hurre bizi izan zutenak. Azken istorioa errazagoa egin zitzaidan, Mainer gaur egun kokatzen den istorio bateko protagonista baita. Hiru istorioak banaka idatzi nituen eta kontu handiz txertatu nahi izan ditut hiruretan zertzelada berak, eleberria osatuz.

Izenburua nondik datorkio liburuari?

Castillo Suarez poetaren *Urtebetetze festa* lanetik hartu nuen. Bertan, izenburu bera duen poeman, bakardadeaz egiten du berba idazleak. Bakarrik gaudenean bizitza orube abandonatu bat dela esaten du eta nire egin nituen baita hitz horiek ere.

Aurrera begira, literatura-proiekturik badaukazu buruan?

Oraingoz *Orube abandonatuak* honi bizitza apur bat eman gura diot. Aurrerantzean, ez dakit... Beste nobelaren bat edo... auskalo! ◀

saiazgetaria
HOTELA
Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.siazgetaria.com



Egunero, 24 orduz
www.hiruka.eus



Kresal usaina, airean

Itsasoaren emazteak ikuskizuna eskainiko dute otsailaren 28an, zapatua, Larrabasterrako Urko kiroldegian, Oinkari Dantza Taldeak eta Hika antzerki konpainiak. Sarrerak salgai daude ohiko lekuetan.

Oinkari Dantza Taldeak eta Hika antzerki-konpainiak formatu handiko ikuskizuna eskainiko dute otsailaren 28an, zapatua, Larrabasterrako Urko kiroldegian. Euskal dantza berriak, antzerkia eta zuzeneko musika batzen ditu *Itsasoaren emazteak* izenburuko espektakuluak. Saioa 19:30ean izango da eta sarrerak 3 euroan edukiko dituzte 12 urte artekoek, eta 5 euroan gainerakoek. Daborduko salgai daude udaletxean, Kurtzio kultur etxean eta Lababasterrako Sopelaren udal bulegoan. Baita Sopelako Udalaren webgunearen bitartez ere.

Euskal dantza tradizionala oinarri hartuta, Euskal Herriko kostaldeko arrantzaleen emazteen bizipenak kontatzen ditu *Itsasoaren emazteak* ikuskizunak. Hirurogei dantzari, lau musikari eta bi aktore batuko dira taula gainean olatuen joan-etorrian, josi eta josi sareetan barrena, istorio bizi eta hunkigarria harilkatuz. «Kre-

sal usaineko emakumeen historia da aurkeztuko duguna. Haien begietatik dantzatu gura dugu, euren ahotatik kantatu, edota euren esku minberatuen azal gaziez berba egin», diote talde bietako kideek. *Itsasoaren emazteak* dira, kostaldeko bizitzaren piper eta gatza. Saregileak ofizioz, sardina-saltzaileak afizioz.

Amantalen ahotsa ikuskizunean egin zuten topo lehen aldiz Billabonako Oinkari taldeko dantzari gazteek eta Hika Teatroko Agurtzane Intxaurragak. «Ilusioa, freskotasuna, gazteen berezko indarra, distira, pauso berriak ematen hasteko gogo... horiek guztiek txundituta utzi ninduten. Hilabete batzuk geroago euren ikuskizun berria zuzentzeko eskatu zidatenean, ez nuen dudarik egin. Bai, gura dut», dio *Itsasoaren emazteak* obrako zuzendariak. Oinkariko kideen arabera, «Agurtzane zuen lan egiteko moduak, transmititzen zuen pasioak eta artistikoki buruan zituen ideiak iku-



Ikuskizunak 60 dantzari batuko ditu taula gainean.

sita, gure etorkizuneko proiektuetan leku garrantzitsua izango zuela garbi gauen». Oinkarik eta Hikak elkarlanean aurkeztutako lana da *Itsasoaren emazteak* ikuskizuna.

Antzerkia gaztelaniaz

Bestalde, otsailaren 27an, barikua, Pabellon 6 taldearen *Fausto, ciudadano ejemplar* antzezlanak ikusgai egongo da Kurtzio kultur etxean. Emanaldia 20:00etan izango da eta sarrerak 6 eu-

roan egongo dira. Disko jartzaile batek, rapero batek eta lau aktorek parte hartzen dute emanaldian.

Istorioaren nondik norakoei dagokienez, Fausto kartzelan dagoen preso da. Indultua eskainiko diote, Madame Demokraziarekin ezkontzea onartu, eta, ondorioz, herritar eredu-garri bihurtzea onartzen baldin badu. Ongizatearen bidea, ezkontzarekin hasiko du; noski, Mefistofeles emazteztat onartzen badu bakarrik. ◀

Donostiako martxarako autobusa Erandiotik

Hizkuntza-politikaren esparruan azken bolada honetan jasandako «injerentziei» erantzun bateratua emateko asmoz, otsailaren 28rako, zapatua, manifestazioa deitu du Donostian Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak. *Oztopoen gainetik euskaraz biziko gara!* goiburua gaz, Gipuzkoa plazatik aterako da martxa, 17:30ean. Deialdiagaz bat eginez, Berbots Erandion Euskaraz elkarteak Donostiara joateko autobusa antolatu du, «ahalik eta jende gehien bil gaitezen». Beste askoren artean, Erandion onartutako Euskararen Erabilera Plana bidaltzeko eskatu zion 2014ko hasieran Carlos Urquijo Espainiako Gobernuaren ordezkariak Udalarri. Orain epaitegira jotzen ari da Urquijo horrelako erabakien kontra eginez. Nafarroako Gobernua eta Frantziako Estatu ere bide beretik dabiltza.

Berbotsen autobusa 15:50ean abiatuko da Erandiogoikoko eliza ondoko autobus-geltokitik eta hainbat geldialdi egingo ditu jendea hartzeko:

15:55ean Astrabuduko anbulatorio aurrean, eta 16:00etan gasolinoan. Hala, 3 euro ordaindu beharko dira eta e-postaz egin beharko da izen-ematea, epemuga hilaren 26a da. ◀

Autobusa

Non hartu:

15:50

Erandiogoikoko eliza ondoko bus-geltokia

15:55

Astrabuduko Iturribengoako bus-geltokia (osasun-etxe aurrean)

16:00

Gasolinoan

Buelta:

21:00 Donostiatik

Prezioa:

3 euro

Informazio gehiago:

Izen-ematea e-postaz berbots@gmail.com helbidean. Azken eguna hilaren 26a





«Euskal txirrindularitza larri, hilzorian dago»

Miguel Madariaga lemoiztarra Euskadi Fundazioa gidatzen dabil. Konfiantzazko tropelean 22 urte eman ditu morroi, esprinterren distira bilatuz. Marin el, taxista zein Kas eta Fagor taldeetako auto-gidari izan da gaur egun Mungian bizi den 70 urteko Madariaga. 1983an sortu zuen fundazioa. Gero, heldu ziren Euskaltel-Euskadi eta UCI World Tour, Euskaltelekiko desadostasunak eta desagerpena. Iaz talde kontinentala «itxi» behar izan zuen. 23 urte azpikoen elite taldea aurkeztu berri du.



INIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA

Talde berria errepidean da. Aurreko urteotan jazo-takoa ikusita, mantendu izanaz harro zaude?

Orain dela 22 urte hasi zen Fundazioaren proiektua. Nik 47 urte daroatzat txirrindularitzan. Hasi ginen ideal bategaz: Euskadiko txirrindulariei ez zeukaten irtenbidea ematea. Alberto Pradera diputatu nagusia buru zela, Juan Carlos Urrutxurtu eta beste hirugaz egin genuen bidea. Zer pasatu zen? Lar ondo hasi ginen; estudiatu barik talde profesional bat zer zen, hori argitzea kostatu zitzaigun. Hasieran jende asko egon zen, gero dirurik ez zenez denek lepoa eman eta ia bakarrik lotu nintzen. Albertok ez zuen aurrera egiteko indarrik izan, denborarik ere ez.

Alberto Praderaz zabilta?

Bai. Gogorra eta oso tristeia izan zen, baina Urrutxurtuk eta biok aurrera egin genuen. Egindako lana oso ona izan zen baina harrobian lan gehiago egin beharra dago. Nortasuna hartu genuenean talde guztietan lirura sorrarazi genuen, sartu zen Euskaltel eta sartu ziren instituzioak, onena izan zen hori. Jose Luis Bilbao bigarren diputatua zen eta indar handia egin zuen. Hortik aurrera, harrobia indartu eta mailak kateatzea lortu genuen. UCI World Tour hasi zenean, Fundazioa eta biok barrura sartu ginen, munduko karrerarik handienak egiteko asmoz: Tourra, Giro, Vuelta, bost monumentuak eta abar.

Milan-San Remo, Flandriako Tourra, Paris-Roubaix, Lieja-Bastogne-Lieja eta Lonbardiako Giroa, alegia.

Bai. Katea behar zen, txirrindulariak kolpean ezin zirelako lehenengo mailara pasatu, salto handia zen. Gero ekipo kontinentala sortu genuen Orbeagaz eta afizionatu talde bat. 2012ko akabuan Euskaltelek hartu zuen talde nagusia, ni aparte utzita, ez zutelako atzerritarrak ekartzeko nire baimena lortu; haiek beste helburu batzuk zituzten. 2013an eta 2014an

“ Uribe Kostako hainbat udal laguntzaile dira, eta hori fundaziorako zoragarria da, indar handia ematen digu ”

bultzada eman diot afizionatuen mailari eta kontinentalari. Azken horrek ez du irtenbiderik: karrera gutxi dago eta txirrindulariei pagatu egin behar zaie. Gure lekua Muriasek hartu du. Orain afizionatu mailako taldea dugu, formaziorako. Fundazioan medikuak, Zuok enpresa... ditugu. Txirrindulariek ez dute inora joan beharrik. Horrek segitzeko indarra ematen digu, txirrindularitzak Euskadin duen egoeran...

Taldera bueltatuz, zelan daude 19 txirrindulariak?

Taldea berez oso ondo dago; talde legez lan egitea lortu dugu. Ez digu hainbeste estutzen karrerak ira-

bazi behar izateak, sozioen eta EDP babeslearen baimenak ditugulako. Serbitzu enpresak ere laguntzen gaitu. Aurton, diru aldetik gutxi falta da aurrekontua orekatzeko, eta proiektua lau urtez zuzentzeko.

Taldean Ander Plazaola getxoztarra dabil, ezta?

Ondo dabil Ander, progresioa aurrera daroa eta lehenengo egunetik grina nabari zaio. Txirrindularia izateko lehenengo eta behin ahalmena behar duzu, eta burua ere ondo jantzita izan. Osterantzean ez dago zer eginik. Eta burua ondo jantzita dauka Anderrek. Gainera kazetaria da.

Ekipo tekniko berak jarraitzen du?

Bai. Uste dut Euskadin dagoen zuzendaririk onena Gorka Gerrikagoitia dela. Nire lekua hartzeko martxan dago eta hori gura dut, ni jada kantsatuta nago, hainbeste *palu* hartzeaz. Gero, Jorge Azanza txirrindulari ibili da bederatzi urtez; Iñaki Isasi nigaz egon da txirrindulari eta zuzendari. Taldea oso neurtuta dago eta gauza asko egin daiteke.

Gorkak zure lekua hartzea... fundazioaren buru?

Ez. Fundazioak bi adar ditu. Batetik, kirol maila: taldearen eta horren ardura guztia nire azpian eramango du Gorkak, nik jada ez baitut gura enfrentamendurik inogaz. Bestetik, umeen ardura dago. Urtero 2.500-3.000 neska-mutil, pasatzen dira hemendik; aurton apur bat gutxiago. Egunean 3 eskola-ordu dituzte. Eskoletatik hona datozen 8 eta 11 urte gazte-



txoak, bide-hezkuntza jasotzeko. Niretzat gauzarik inportanteena da txirrindulagaz ibiltzen jakin dezate: hemen dituzte 40 bizikleta, zirkuituak adinaren arabera prestatuta, eta tailerrak ere ematen zaizkie. Gainera, eskola dugu 38 neska-mutilakaz, Dorleta Zorrillak eta Ibaia emanten dituzte eskolak; eta hori da Fundazioaren beste adarra, umeak eta gazteak bidean gogortzea.

Umeei begirako proiektu denak bantendu dituzue?

Bai, mantendu eta gogortu. Eskaera handia dauka. Errepidera irten aurretik, urte batzuetan, BTT mailan egoten dira, arrisku txikiagoa dagoelako. 2016rako kadete talde bat egingo dute hona datozen umeakaz.

Posible litzateke 1.700 bazkideren laguntza barik?

Ez. Zoritxarrez, gainera, aurten batzuek laguntzeari utzi diote. Krisiak eragin handia izan du, baina era berean, askok esan digu: «jada ez dugu talde profesionalik eta guk Tourrera joateko baimena nahi dugu». Ezin da. Bazkideakaz batera, Uribe Kostako hainbat udal dira laguntzaile, eta hori Fundaziorako zoragarria da, indar handia ematen digu.

Domekan lortu zenuten lehenengo podiuma.

Tourrean, Giroan, Vueltan... ez dugu inoiz izan erreferente bakarra, Samuel kenduta; txirrindulari diferentekaz egin dugu, talde bezala indartsu ginelako eta talde legez egiten genuelako aurrera. Talde ho-

netan ere zoragarria izango da horrela jarraitzea. Domekan podiuma egin zuen batek, beste egun batean egingo du beste batek. Hori da politena.

Halere, inportanteena formazioa da.

Ikastea; erakustea guk eta ikastea eurek.

Balioak ere transmititu gura dituzue.

Gure balioak beti dira berak: hemen jaiotako edo hemen trebatutako txirrindulariak laguntzea. Kanpoko txirrindulariak 16-17 urtegar hona sartzen hasi dira, hau bezalako proiekturik inork ez duelako.

Iaz laga behar izan zenuten talde kontinental.

Kontu triste eta gogorra izan zen. Ikusten genuen horrela segiduz gero, urtea zuloagaz amaituko genuela. Orain dela 22 urte izan nuen zulo bat eta, hori topatu ezinik, gauza asko pasa ziren nire inguruan eta nire bizitzan; hori ez dut berriro ikusi gura. Txirrindulariakaz berba egin genuen, akabuko eurora arte kobratu dute. Dena likidatu genuen, egin behar zen moduan, eta gaur egun Fundazioak ez du superabiltik, ezta zorrik ere!

Euskal Herrian talde kontinental bi behar direla esana duzu. Aurten Jon Odriozolaren Murias proiektua aurrera atera da, zelanbait Fundazioaren lekua hartuz. Tartean Jaurlaritza, Federazioa eta Baque-Camposen proiektuak bidean gelditu dira.

22-23 urteko txirrindulari lar dago Euskadin. Horien-

tzat beharrezkoak dira talde kontinental bi, eta kontinental-pro talde bat ere, Caja Rural bezalakoa. Caja Ruralek, normala denez, hemengo eta kanpoko txirrindulariak ditu, Movistarrek bezala. Bitartean, talde afizionatuak ez dira desagertu behar. Ni esan eta esan nabil, baina inork ez du kasurik egin gura. Bai, Muriasek taldea atera du, baina afizionatu mailako txirrindula-talde bi joan dira kalera, eta berririk ez dago. Nora goaz horrela? Zortzi mutil lotu dira talde barik eta ate joka dabilta. Bizkaia aterako du igual talde bat, baina tapatzeko mutil horiena. Uholdea dator, eta estalkiak besterik ez gaude ipintzen; urak egun batetik bestera aurretik eramango ditu. Horixe da Euskadiko txirrindularitzak daukan problema.

Talde nafarrak, Movistar, antzina Reynolds zena, eta Caja Rural erreferente bilaka daitezke?

Aurton hasi diren karrera guztietan lehenengo hamarren artean dabilzan txirrindulari denak Fundazioan egondakoak dira. Horiek *kaduzidade* bat dute, edadea gorantza doa-eta. Nork ordezkatzeko ditu Movistarren eta Caja Ruralen? Caja Ruralek harrobia ondo lantzen du baina 22 txirrindulari ditu jatorri askotakoak. Euskadin ez dago borondaterik akatsa non dagoen antzemateko. Zer pasatuko den? Ni pozik gelditu nintzen irakurri nuenean Gobernuak talde bat aterako zuela, eta gauzak lar ondo egin ez arren, uste dut saiatzen segituko duela. Muriasek eta Jon Odriozolak, uste dut, ez dutela argi zer topatuko duten txirrindularitzan. Egon dira Algarven korritzen eta mutilek nahiko egiten dute, baina taldea eusteko dirurik badago? Haiek espero duten moduan, laguntza emango du Gobernuak? Ez dakit, azken hiru urteotan Gobernuak ez nau lagundu. Nik eskatzen segitzen dut. Ez da ispilu ona aurpegia begiratzeko duguna, ez Muriasek eta ez inork ere.

Emakumezkoetan, Lointek, Durango-Bizkaia eta KZ Emakumeen Bira daude. Egoera okerragoan daude?

Okerrago ez. Lan egiten dute eta haien lana gauza handia da. Emakumeen txirrindularitzak laguntza gehiago behar du. Guk Emakumeen Birarako eta beste proba batzuetarako gure kamioneta utzi dugu, laguntzeko. Nik gehiago ezin dut egin, guri ere dirua ez baitgute ematen.

“Lehenengo hamarren artean dabilzan txirrindulari denak fundazioan egondakoak dira; nork ordezkatzeko ditu?”

Erakundeek gero eta laguntza gutxiago. Zaleen aldetik ikusten duzu laguntzeko joera ala zain daude?

Bai txirrindularitzan eta bai leku guztietan ohitura da beste batzuek lan egitea eta norberak loreak jasotzea. Hori amaitu da. Adibidez, negozioari eusten dion Federazioak zer eman diezaioke emakumeen txirrindularitzari? Egin behar dena da denak batu, akatsak non dauden topatu eta, bata besteari zapaldu barik, denon artean aurrera egin. Euskal txirrindularitza larri, hiltzorian dagoela diodanean segidan telefonoak jo eta «hori ezin duzu esan, afizioa atzera botako duzu eta!». Ez; afizioak badaki. ◀



Ezkerreko argazkian, Federazioak Itziar Lazurtegi emandako saria eskuarte hartu zuen Arantza bere ahizpak; goian, Pyrenaica sarien irabazleak; eta behean, EMF sariak eskuratu zituztenak.

Euskal mendizaleen geroa, lanbroaren artean ikusgai



Xumea, zirrargarria eta etorkizunari begirakoa izan zen pasa den barikuan Faduran egindako Euskal Mendizaleen Gala; sari-emanaldiaz gainera bidean utzitakoak oroitu eta kimu berriei arreta jarri zieten.

Euskal mendizaleen topaketak lau une hunkigarri izan zituen. Haietako bi Miren Itziar Lazurtegi Mateos mendizale algortarra zenaren oroimenez etorri ziren. Pasa den urrian Panticosan mendi istripuz hil zen eta hutsune handia laga du hainbat arlotan, hurkoen artetik harago: *Pyrenaica* aldizkarian, Mendicat webgunean... Bere ekarpena eskertzeko, *Pyrenaica* Emakumeak blogaren Lehiaketak bere izen-abizenak hartu ditu. Banatzeko ohorea bere ahizpa Arantza Lazurtegi Mateos Sopelako Munarrikolanda mendi-taldeko kideari utzi zioten. Euskal Mendiza-

leen Federazioak (EMF), berriz, Itziar Lazurtegi saritu zuen hil ostean, Emakume Mendizalearen garaikurraz.

Emozioak azalarazteko hirugarren unea Antonio Ortega Tercerogaz heldu zen. 35 urtez *Pyrenaica* aldizkariaren zuzendaria izandakoak bere agurra eman zuen ekitaldian. Ortega badoa, aldizkaria desagertze-arriskutik atera ostean. Irribarreia Etorkizuna menditalde getxoztarraren bazkide bik jarri zuten. Roberto Vicario Urrutia bazkiderik beterranoenak eta bere iloba eta kide gazteena den Danel Monasterio Vicariok jaso zuten *Pyrenaica* saria: etorkizuna badago. ◀

Pyrenaica sariak

Pyrenaicaren Laguna
Christian Rodriguez (*Pyrenaica* ez itxi)
Etorkizuna mendi-taldea

Pyrenaica Emakumeak blogaren V. Lehiaketa - Itziar Lazurtegi Mateos 800 Dukado
Txaro Iglesias Lareo

Mendi Artikuluen XXXI. Lehiaketa
Joseba Calzada (1.)
Iñaki Carranza (2.)
Jose Martinez eta Parys Lisiecki (3.)

Mendi Argazkien XXXII. Lehiaketa
Carlos Mediavilla Arandigoyen (1.)
Jonatan Larrañaga (2.)
Jose Luis Solana «Solasaga» (3.)

EMF sariak

Mendiko lasterketa saria
Maite Maiora Elizondo

Kirol eskaladari Angel Sopena saria
Zuriñe Arrue Tobar

Emakume mendizaleari Loli Lopez Goñi saria
Itziar Lazurtegi Mateos (hil ostekoa)

Jarduera alpinoari Andres Espinosa saria
Alberto Fernandez Santiago

Artikulu jakingarriari Antxon Bandres saria
Antonio Ortega Tercero

Mendi eskiko jarduerari Andres de Regil saria
Aitor Otxoa Biain

Ibilbideari saria
Mikel Saez de Urabain Gabilondo

Euskal mendizaleen Adiskideak saria
Patxi Gale Garcia

Iraupen luzeko ibilaldiei Sheve Peña saria
Ricardo Suso Lopez

Kantxa
kirol moda

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA



Torre 4
ALGORTAKO AZOKA

TF. 94 491 18 82
info@kantxa.eu
www.kantxa.eu

Sokatira txapelketa, zapatuan

Sokatira-lehia apartak izan-go dira zapatuan Erandioko Altzaga auzoan. Arrastiko 17:00etatik aurrera, Goma ga-ineko Euskal Herriko 8x8 Sokatira Txapelketa hartuko du bertako kiroldegiak. Gizonezkoetan, 600 kiloko finala jokatu da. Aduna eta Bilboko sailkapen-jardunaldien ostean, Lapurdi-ko Ñapurak eta Urdaibaiko Murueta taldeak bilakatu dira multzo-buru, hurrenez hurren 14 eta 11 punturekin. Berriozar, aldiz, finaletik kanpo gelditu da. Beste lau parte-hartzaileak honakoak izango dira: Ibarra, 10,5 puntu; Beti-Gazte, 8; Sokarrola, 6,5; eta Abadiño, 3,5. Hiruna taldeko ligaxka bi egin ostean, multzo bakoitzeko lehenak bestearen bigarrenaren aurka jokatu du. Finalerdietako irabazleak Euskal Herriko txapelagatik lehiatuko dira. Emakumezkoek, aldiz, 375 kiloko bigarren jardunaldia izango dute, 18:00etatik aurrera. Bilbon, Ibarra-ko taldea nagusitu zen, atzean lagata Gaztedi, Badaiotz eta Berriozar. ◀



Murueta Sokatira Taldea, iazko Goma Gaineko Euskal Herriko 8x8 Sokatira Txapelketan.CC-BY-NC-SA KARKARA



Erandio Atletismo Taldeak Jorge Blancoren omenezko proba ere antolatzen du. © ERANDIO A. T.

Herri-krosa, Erandion

Domekan, martxoaren 1ean, atletismoak hitzordu garrantzitsua du. Erandio Atletismo Taldearen ekimenez, bertako herri-krosaren 26. edizioa korritu ahal izango da. Kadete mailarainoko neska-mutilek ez dute aurretik sarean izen-ematea egin beharko, sendi-lasterketako partaideek legez, baina webgunetik fitxa jaitsi eta proban zehar eraman beharko dute. Bestelako korrikalariak, oraindino egin ez badute, inskripzioa bete beharko dute sarean

edo kiroldegian, epemuga zapatuan goizeko 13:00etan da. Probaren egunean antolatzaileek ez dute inskribatu gabeko atletarik onartuko. Lasterketa goizeko 10:30ean hasiko da, eskolako kirolariakaz. Tartanga kaleko 14. zenbakitik atera eta 500 eta 2.000 metro arteko ibilbideak egingo dituzte, adinaren arabera. Familia lasterketa 11:45ean abiatuko da, 750 metro egiteko. Ondoren, lehiaketa-probak izango dira, 7.000 metro. ◀

info+: atletaerandio.com

HIRUKAko kide izan gura duzu?

Bi aukera dituzu:

1

Proiektuan barrutik parte hartzeko kooperatibako Bazkide eginez:

BAZKIDE ERABILTZALE izanda:

• Pertsona Juridikoak: 1.000 € + Urteko kuota: 30 €

• Norbanakoak: 100 € + Urteko kuota: 30 €

BAZKIDE LAGUNTZAILE izanda:

• Pertsona Juridikoak: 200 € + Urteko kuota : 33 €

• Norbanakoak: 50 € + Urteko kuota : 33 €

2

Egitasmoa bultzatzeko ekarpena eginez:

HIRUKA LAGUNA

• Urtero ekarpena eginez (gutxienez 35 €) proiektuaren bultzatzaile izango zara, hainbat onurez baliatuz.

☐ Bazkide Erabiltzailea

☐ Bazkide Laguntzailea

Hiruka laguna

☐ Urtean 35€ ☐ Urtean _____ €

Izena

NA

Abizenak

Helbidea

Posta kodea

Herria

Herrialdea

Telefonoa

E-posta

Kontu korrante zenbakia

Bete ondorengo datuak eta bidali postaz hona: Martikoena 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fixategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzailearen harremanetan jaritzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikazioak helarazteko. Erabiltzaileak bere datuak erabiltzeko aurrerantzeko erabakia hartu du. Erabiltzaileak bere datuak erabiltzeko aurrerantzeko erabakia hartu du. Erabiltzaileak bere datuak erabiltzeko aurrerantzeko erabakia hartu du. Erabiltzaileak bere datuak erabiltzeko aurrerantzeko erabakia hartu du.

Irristaketa eta Gimnasia proba ikusgarriak izango dira asteburuan, Algortan eta Leioan. Kirola eta artea orekaz batuko dituzte ikuskizun horiek.

Kirola eta artea bat eginda, Uribe Kostan



Sakonetan hainbat gimnasia espezialitate izango dira ikusgai.

Bigarren urtez, Getxo Hiria Nazioarteko Saria hartuko du asteburu honetan Algortako Fadura kiroldegia. Daborduko, Euskal Herriko zein munduko irristaketa artistikoaren erakuslea bilakatu da ekimen hori, historia laburra duen arren. Horren erakusle da aurtengo 250 patinatzailek parte hartuko dutela proban, iaz baino 50 bat gehiagok, Show Getxo patinaje talde antolatzaileak jakinarazi duenez.

Goizeko 9:30etik aurrera zapatuan eta ordu bat lehenago domekan, Euskal Herri, Frantzia, Italia, Espainia,

Eslovenia eta hainbat herrialdetako patinatzaileen akrobaziak izango dira ikusgai, erabat doan. Azpimarratzekoa da zapatuan, arrastiko 19:30ean gala izango dela, Isabella Genchi eta Alberto Purich Europako txapeldun italiarrekin. Horren ostean, Show Getxo taldeko kideek eta Lets Dance dantza-konpainiak zenbait ikuskizun protagonizatuko dituzte, sari emanaldiaren aurretik.

Getxo Hiria Nazioarteko Saria iaz sortu zen, Getxoko Udalaren eta Getxo Kirolak erakunde autonomoaren babesagaz. Udalerrak Europako Ki-

rol Hiria izendapena jaso izana ospatzeko, zenbait ekimen sustatu zituzten erakunde publikoek; tartean, patinaje artistikoaren topagunea. Lortutako emaitza «luxuzkoa» izan zen, Eva Sainz Show Getxoko koordinatzailea eta entrenatzailearen arabera. Show Getxo taldeak EAEn dauden 750 irristaketa-zaleetatik 120 bat batzen ditu, Jaime Tejeda presidenteak gogoratu duenez.

Gimnasia Sakonetan

Bestalde, domekan, martxoak 1, Gimnasia Federazioaren Saria izango da

Leioako Sakoneta kiroldegian, goizeko 9:30etik aurrera. Probak Macarena Milla mungiarra zenaren izena hartu du, hil osteko omenaldi gisa. Milla Federazioko presidenteordea, nazioarteko epailea eta entrenatzailea zen pasaden azaroan hil zenean. Domekan, eskola-jarduerak izango dituzte goizean zehar ehun neska-mutilek baino gehiagok. Sakoneta eta Getxo taldeak batera beste hamar izango dira, tartean Xixili, 21 urtez Millak entrenatu zuena. Arrastiko 16:30etik aurrera, 32 gimnasta lehiatuko dira. ◀

info+: cpshowgetxo.com | skonetaget.com



Kirol ekimenak, zerbitzuak eta azpiegiturak negozio-eremuak izan daitezke. © GETXOKO UDALA

Kirola negozio bilakatzeko campusa

Pasa den urtariletik eta martxoaren 6ra arte, 18 pertsona dabilta Algortako Fadurako Getxo Osasunlab campusean ikasten. Getxoko Udalak zabaldu duenez, ekimena Getxo Kirolak erakundeak antolatutako lehenengo ekintzailatza-campusa da, ongizatearen eta kirol antolatuaren eremuan interesatuta dauden enpresa-sortzaileentzat eratu. Alvaro Gonzalez Kirol zinegotziak campusaren alde profesionala azpimarratu du, «izan ere, Udalak gauzatutako sustapen ekonomikoko eremu estrategikoen azterketak islatzen duenaren arabera, kirolagaz eta ariketa fisikoa-gaz lotutako industriak eta zerbitzuek negozio-aukerak eskaintzen dituztelakoan» dago. Programa 2014ko Europako Kirol Hiririk Onenaren izendapenari lotuta dago eta eskaintako 18 plazak betetzea lortu du. Hiru kide Mexiko, Eslovenia eta Errusiako gazteak dira, De Amicitia Gobernu Kanpoko

Erakunde espainiarraren bidez eman dute izena. Beste 15ak getxoztarrak dira, 25 eta 50 urte bitartean dituzte eta gorputz-hezkuntzan, turismoan, gizarte zein kultura animazioan, hezkuntzan edo artean prestakuntza dute.

Getxo Osasunlaben xedea, kirolaren eta ongizate fisikoaren zein emozionalaren alorrean prestakuntza espezializatua eskaintzea da, «inguru sortzaile eta praktikoa». Campusean, alor horietan ekintzailatza-proiektuak lantzen dabilta. Balorazio onena jasoko duten ekimenek Getxolaneko aholkularitza profesionala izango dute. Ekintzaileek prestakuntza jaso dute sormenean, ongizate eta kirol joertan, ekintzailatza, lidergoan eta komunikazioan. Gainera, hainbat enpresak bere esperientziak azaldu dizkiete eta Gazteria, Kulturartekotasuna, Berdintasuna, Getxo Kirolak eta Getxolan udal arloetako teknikariek aholkularitza eskaini diete. ◀

Zazpi ezberdintasunak



Sudokua

		5		2			8	
				8	4	6		2
			2	5			3	
4	2			7				
		3	6		1		9	7
	8						5	3
						7		
		1	9	6				

Gogoan hartu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe,ilara eta azpilauki bakoitzean.

Soluzioak



4	2	8	5	9	6	1	7	3
1	9	7	2	3	8	4	6	5
3	5	6	1	7	9	2	8	4
7	6	2	1	9	3	5	8	4
8	1	5	9	7	3	6	2	4
6	3	4	8	5	2	7	1	9
2	7	6	4	8	5	9	3	1
5	1	4	3	6	2	8	7	9
9	8	3	6	4	1	2	5	7

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Postariak ekarri beharreko gutunak nekez helduko dira, etxera txirrina jotzen dutenean atea irekitzen ez baduzu.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Bada garaia plater berriak probatzeko. Samurtu mingaina, eta ekin esperimentatzeari. Lagunen bat erabil dezakezu kui legez.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Aratusteetan dena izan da algara, jan eta edana; batez ere, edana. Oraindik ez da berandu Korrikarako prestatzen hasteko.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Aste zoriontsua izango da. Ez, ez espero albiste handi eta liluragarriak, ezta zortearen bolada pozgarriak ere. Xehetasunetan murgildu.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Oporrak otsail amaieran? Arraro, baina, zergatik ez? Ahal baduzu, behintzat, zuk zeuk aukeratu noiz disfrutatu.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Bat-batean sukaldaritzaz ezagupen baino jakin-mina gehiago duen lagun batek bazkaltzera gonbidatzen bazaitu, mesfidantzaz hartu.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Neguko arropa barik zaude, baina lasai egon! AEK-ko lagunek modelo berriak atera dituzte. Arropa desfilea ikusgai izango duzu Urkon.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Izkina guztien atzean ezkutatzen den gripearri sigi-saga egin diozu orain arte. Horrela jarraitu. Lortuko duzunik inor ez daki!



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Apustuak apustu, beti Athleticen alde egiten ohi duzu. Damutzen hasia zara, baina nola aitortu horrelakorik?



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Abiadura ez da kontu ona, neurritz ez bada. Ahalegindu zure erritmoa lasaitzen, gorputzak eskertuko dizu-eta.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Dena ondo dagoenean agertu behar da betiko morroi hori, zuk zein den ondotox jakin bada-kizuna. Ohi legez, izorratzeko dator, noski.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Berriro ere pentsatu eta aztertu zure mugimenduak izoztu baino lehen. Non demontre sartu zenuen edredoi nordikoa?

BODEGUILLA BUTRON
Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

PINTXOAK
OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
RAZIOAK-BOKATAK-PLATER KONBINATUAK
AFARIAK ETA URTEBETETZEAK
ENKARGUZ
Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA



Texasen (AEB) fracking-aren bidez gasa ustiatzeko ehunka putzu daude. SIMON FRASER UNIVERSITY/UNIVERSITY COMMUNICATIONS

Fracking-a

Eskualdea zulatzeko proiektu eztabaidatsua

IKER RINCON

Fracking-a uribekostar guztien ahotan dabilen kontzeptua da azkenaldian. Presio hidraulikoaz baliatuz lurzoruko arroak hautsi eta gas naturala ateratzeko teknika hori ate joka dabil gure eskualdean; izan ere, Bizkaiko kostaldean zehar fracking-aren bidez gasa ustiatzeko proiektu bat dago martxan: Geminis izenekoa. Espainiako Industria Ministerioak Frontera Energy Corporation SL nazioarteko enpresari eman zion 2011n Geminis proiektua gauzatzeko baimena, eta horrek Getxo eta Bermeo arteko 47.940 hektarea hartzen ditu, lurreen zein itsasoa.

Egoera horren aurrean, herritar ugari batu eta mobilizatzen hasi dira; horren adibide dira Getxo-ko eta Sopelako fracking-aren aurkako taldeak. Une honetan, euren egitekoa haustura hidraulikoaren inguruko eztabaida gizarteratzea dela aitortzen dute, «orain gutxira arte, jendeak ez zekielako fracking-a Uribe Kostara heldu zitekeenik; bazirudien arazoa Arabara eta Gran Enara proiektura bakarrik mugatuta zegoela».

Herritarren artean mugimendua martxan da, baina baita udaletan ere. Plentziakoa izan zen teknika horren kontra agertu zen lehenengo Udala eskualdean, eta «fracking gabeko udalerria» izendatu zuten alderdien ahobatezko erabakiagaz.

Bide berdina hartu zuen hurrengo Gorlizko Uda-

la izan zen, emaitza beragaz. Jarraian Sopela ere teknikaren kontra agertu zen. Udalerri horretan bi mozio aurkeztu dituzte: lehenengoa, 2013ko uztaillean, «fracking gabeko udalerria» izateko; eta bigarrena, 2014ko ekainean, teknika horren zundaketen baimeak bertan behera geldi daitezen eskatzeko.

Bi mozio horien artean alderdien jarreretan aldaketa nabarmenak egon dira; izan ere, galdeketetan jarrera mantendu duen bakarra EH Bildu izan da:

EAJ, PP eta PSE-EE alderdien fracking-arekiko jarrera aldakorra da, herrietako mozioen bozketek azaleratzen dutenez

2013koan EH Bildu eta EAJ mozioaren alde agertu ziren, PP eta PSE-EE abstenitu egin ziren; 2014koan, berriz, EH Bildu eta PSE izan ziren alde bozkatu zutenak, EAJ abstenitu egin zen eta PPk kontra bozkatu zuen.

Ia urtebete beranduago, 2015eko urtarrilean, eztabaida Barrikara heldu zen, EH Bilduren eskutik. Fracking-aren kontrako mozioak aurrera egin zuen, EH Bildu, Ibarrika eta Berdeen aldeko botoakaz. EAJk kontra egin zuen. Egun batzuen buruan, Be-

Gasa ustiatzeko *Geminis*

proiektuak hautsak harrotu ditu eskualdean. Herritarrek eta alderdiak lanean dabiltza hausturaren mamuari aurre egiteko.

rangon ere «fracking gabeko udalerria» izendatzeko mozioa aurkeztu zuen koalizio subiranistak. Udalerri horretan ez zen mozioa aurrera atera, EH Bildu, PSE-EE eta Ezker Anitza-IU alderdien botoak ez zirelako nahikoak izan, EAJ eta PPren kontrako jarrerari aurre egiteko.

Hala ere, Berango ez da «fracking gabeko udalerria» izateari uko egin dion bakarra eskualdean; Erandion eta Getxon, 2014ko ekainean, bana mozio aurkeztu zuen EH Bilduk. Lehenengoan EAJk, PSE-EEK eta PPk mozioaren kontra egin zuten; bigarrenean, berriz, EH Bilduk eta PSE-EEK alde bozkatu zuten, EAJk kontra eta PP abstenitu egin zen.

Datuok ikusita, herri mailan EAJ, PP eta PSE-EE alderdien jarrera aldakorra agerian gelditu da. Jeltzaleen kasuan, hasiera batean fracking-aren kontra zeudela zirudien, 2013an Plentzian, Gorliz eta Sopelan mozioen alde agertzen baitziren. Urtebetera, berriz, Sopelan abstentziora jo zuten, eta Erandion eta Getxon mozioen kontra agertu ziren, aurtengo galdeketetan egin duten bezalaxe.

PPk eta PSE-EEK ere antzeko jarrera aldaketak izan dituzte udalerriz udalerri. Popularrek abstentzioagaz hasi ziren Sopelan eta Getxon, baina mozioen kontra egiten bukatu dute azkenean. PSE-EEK, berriz, herriaren arabera norabide bat edo beste hartu du.



«Fracking gabeko udalerria»

Baina, zer esan gura du «fracking gabeko udalerria» izateak? Bada, 2012an Fracking Ez Arabak udalbatzetan mozioak aurkezteko kanpaina abiatu zuen haustura hidraulikoa jasango duten herrietan izendapen hori lortzeko, herritarrak teknika horren kontra dardela adierazteko asmoz. Nolanahi ere, erabaki horrek ez du esan nahi fracking-a debekatzen denik, udalerriek ez baitute horretarako eskumenik. Teknika modu orokorrean debekatzea Espainiar Estatua-ren eskuetan dago soilik. Hala ere, autonomia-erki-degoek badute eskumenik nahi dituzten baldintza tekniko eta ingurumeneko guztiak ezartzeko, fracking-a ahalik eta modu seguruenean egin dadin.

Horrez gainera, Fracking Ez Getxo taldeko kideen arabera, udalerriak pauso bat harago joan daitezke fracking-a galarazteko; izan ere, haustura hidraulikoaren bidez etekinak lortzeko tartea «oso txikia» da. Hala, haien arabera, fracking-a geldiarazteko aukera bat izan liteke enpresei ahalik eta traba gehien jartzea, proiektua aurrera eramateko kostuak areagotuko lirateke horrela. Horren harira, udalek HAPOren bitartez nola-halako trabak jarri ditzake-

Baliteke laster kanpaina sismikoa egiten hastea eskualdean. Udalek horren inguruko gutunak azaroan jaso zituzten

te, fracking-a egiteko kamioiei auzo-bideen erabilera mugatuz, besteak beste.

Herri Ekimen Legegilea fracking-aren kontra
EAEko Fracking Ez plataformak buru-belarri ibili dira sistema horrek ustez sortzen dituen arazo guztiak jendartearen hedatzeko eta salatzeke. Horrez gainera, fracking-a heltzear dagoela ikusita, 103.589 sinadura bildu zituzten iaz, Eusko Jaurlaritzak teknika horren inguruan eztabaidatu zezan. Hainbat hilabe-



te igaro dira ordutik, eta oraindik ez dute erabakirik hartu. Horren aurrean, EAJk Herri Ekimen Legegilea-ren (HEL) eztabaida hauteskundeak igaro osterarte atzeratu nahi duela salatu zuten duela aste bi Fracking Ez plataformakoek. Izan ere, jeltzalek HEL-aren zuzenketak aurkezteko aukera bertan behera gelditzea eskatu dute. Horrez gainera, EAJk fracking-aren inguruko eztabaida Ingurumen Batzordetik Gara-pen Ekonomikoarenera aldatu izanak «eztabaidaren denborak kontrolatzeko saiakera argia» dela uste dute teknikaren kontrakoek, batzorde hori jeltzaleen eskuetan baitago.

Kanpaina sismikoa ate joka

Geminis proiektuak hainbat aldaketa izan ditu azken urteotan, baina dagoeneko Frontera Energy Corporation SL enpresak kanpaina sismikoa egiteko baimena eskatu du: lur azpiko estruktura geologikoak aztertu nahi dituzte. Azterketa horregaz, 2016-2017 urteetan egingo dituzten zundaketak non egingo dituzten zehaztuko dute.

Gauzak horrela, joan den azaroaren 5ean, Espainiako Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak gutun bat helarazi zien Geminis hartzen dituen udalei. Horretan, «Geminis hidrokarburoen ikerketarako baimenaren 2D Lurreko Kanpaina Sismikoa»-ren berri ematen zuten; halaber, gutunean udalei eskatzen zitzairen proiektuak euren eremuan izan ditzakeen eraginak jakinaraz ditzaten. Hala, Keltse Eiguren Getxoko Udaleko Ingurumen zinegotziak, 2014ko abenduaren 9an ingurumen-teknikariak egindako txostenean oinarrituta, gutunari erantzun eta hainbat alegazio egin zituen; esate baterako, obrak hasi baino 3 hilabete lehenago Udaleko teknikariakaz lan-bilera egitea nondik norakoak zehazteko, Bolue hezegunean ingurumenaren gaineko eraginik ez izateko neurriak hartzea, Bolueko haranaren inguru guztian lanik ez bideratzea eta azterketa-guneak kostaldetik ahalik eta urrunen egitea. Ez dago argi bestelako udalek ere erantzunik eman duten. ◀

Eskualdeko «fracking gabeko udalerrien» mapa

Fracking-aren kontrako mozioa onartuta
Fracking-aren kontrako mozioa baztertuta
Ez da moziorik aurkeztu

PLENTZIA
2013ko apirilean
Alde: EH Bildu, Plentziako Independienteak eta EAJ.
Kontra: Inor ez.
Abstentzioak: Inor ez.

GORLIZ
2013ko maiatzean
Alde: EH Bildu, Gorizko Independienteak eta EAJ.
Kontra: Inor ez.
Abstentzioak: Inor ez.

SOPELA
2013ko uztailen
Alde: EH Bildu eta EAJ.
Kontra: Inor ez.
Abstentzioak: PP eta PSE-EE.
2014ko ekainean
Alde: EH Bildu eta PSE-EE.
Kontra: PP.
Abstentzioak: EAJ.

ERANDIO
2014ko ekainean
Alde: EH Bildu.
Kontra: EAJ, PSE-EE eta PP.
Abstentzioak: Inor ez.

GETXO
2014ko ekainean
Alde: EH Bildu eta PSE-EE.
Kontra: EAJ.
Abstentzioak: PP.

BARRIKA
2015eko urtarrilean
Alde: EH Bildu, Ibarrika eta Berdeak.
Kontra: EAJ.
Abstentzioak: Inor ez.


BERANGO
2015eko urtarrilean
Alde: EH Bildu, PSE-EE eta Ezker Anitza-IU.
Kontra: EAJ eta PP.
Abstentzioak: Inor ez.

Leioan, Urdulizen eta Lemoizen ez da moziorik aurkeztu.



Lehen/Orain

Plentzia



Erretratua

Patricia Martinez Goikoetxea

Algortako Portu Zaharreko bizilaguna eta albaitaria

Animaliak bere bizilekua bezainbeste maite ditu 45 urteko algortar honek. Ogibidez albaitaria da eta auzoko elkartean zein jaien antolaketan dabil.



Bizitza honetan pasio bi ditu Patricia Martinez Goikoetxeak. Alde batetik, bizi den tokia, hau da, Algortako Portu Zaharra biziki maite du 45 urteko emakume honek. Bestalde, animaliak beti izan ditu gustuko. Portu Zaharrean bertan albaitaritzaklinika jartzea izango litzateke bere ametsa.

Ukitzeko asmoz, haurtxo denak joan ohi dira katu edo txakurraren atzetik, animalia ikusten duten bakoi-tzean. Patricia, urrunago heldu zen eta bere pasioa lanbide bihurtu zuen: albaitari ikasketak egin zituen Zaragozan. «Oso ondo konpontzen naiz animaliakaz», diosku. Are gehiago. Aitor-tu duenez, askoz lehenago gogoratu ohi da txakurraren izenaz, jabearenaz baino. Bere ogibideak alde txarrak ere badituela jakitun da Martinez: «animaliak zahartzen direnean, hilzorian daudenean, istripua dagoenean... gogorra izaten da. Baina, orokorrean, nahiko atsegina da nire lana», dio Al-

gortako Portu Zaharreko albaitari ho-nek.

Paraje eder horri dagokionez, 14 urte zituela hasi zen auzoko jai-batzordean Patricia Martinez; pegatinak saltzen, hain zuzen ere. Ordutik 30 urte igaro dira, eta, «belaunaldi erre-leboa» faltan duela dioen arren, Portu

“Askoz lehenago gogoratu ohi naiz txakurraren izenaz, jabearenaz baino”

Zaharrean bizita, festen antolaketan ez nahastea ezinezkoa litzaiokeela aitortzen du emakumeak.

Gaur egun tokiko auzo-elkartean ere badabil. Izan ere, Martinezen berbetan, «denok gogoko dugu Portu Zaharra, baina nahiko utzita geneukan». Daborduko hainbat hobekuntza lortu dituzte estolda eta argiterian.

HIRUKA Koop. elk.

Helbidea: Martikoena 16, 2. solairua 48991 GETXO

e-Posta: hiruka@hiruka.eus

Posta Kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Erredakzio-burua: Irantzu Sagaminaga

Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Julen Nafarrate, Inigo Fernandez de Martikorena

Argazkiak: Hodei Torres

Diseinua: Jorje Perez eta Eñaut Etxebarri

Publizitatea: Erika Martinez

Kudeaketa: Zortza Merino

Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA

Lege Gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

CC-BY-SA



Erakunde laguntzaileak:

